



**Maria Luisa
Gorrotxategi
eta Mila
Garmendia
pintoreak**

**Beasaingo
pilotaren
historia**

**Joseba
Auzmendi
erremonte
txapelduna**

Kiroldegi berritzailea Beasainen



gasta ezazu!



BEASAINGO UDALA



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA

SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

www.landrover.es



BERMEA
3URTE
1.000.000 Km

Land Rover kontzesionarioa Gipuzkoan. **EUROLAN 4x4**



THE LAND ROVER EXPERIENCE

EUROLAN 4x4 Donostia-Hernani errepidea (Galarreta) Telefonoa: 943 331 006

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)
124 posta-kutxa ORDIZIA
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
Posta elektronikoa:
goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu
Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aimar Maiz, Zelai Amenabarro, Aitziber Murua, Jon Muñoa, Edurne Sorraluze, Juantxo Unanua eta Landarlan.

Fotokonposizio eta maketazioa:
Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9, Oñati)
Tirada: 7.000 ale
SSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89
Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria

Antzerki Garaia hasi da Beasainen eta Ordizian

Urtarrilaren 9an Ordiziako Herri Antzokian hasi zen 2004ko Antzerki Garaia. Beasaingo eta Ordiziako udaletako Kultura sailek elkarlanean antolatutako egitaraua da Antzerki Garaia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskadiko Antzerki sarearen lankidetzarekin.

Antzerki Garaia 1995ean antolatu zen lehenengo aldiz. Iazko ekitaldiaren balorazioa oso positiboa izan zenez, aurtin hamargarren denboraldia antolatu dute. Helburuak bi dira: batetik, antzerkia ikustera joateko ohitura galdu duen publikoa berreskuratzea; eta bestetik, publiko berria erakartzea, gaztea batik bat.

Urtariletik apirilera 8 emanaldi eskainiko dira; horietatik 6 talde, Euskal Herri bertakoak dira. Taldeak eta obrak aukeratzeko irizpidea kalitatea izan da antolatzailleen esanetan. Muntaia, lengoiari emandako trataera, hizkuntza, konpainiaren eskarmentua eta profesionaltasun eta obren arrakasta hartu dira kontuan.

Sarrarek 7 edo 10 eurotan salduko dira, emanaldiaren arabera. Denboraldi osorako abonua ere badaude, 50 eurotan. 10 sarrera baino gehiago eskuratu nahi dituzten kultura-talde, ikastetxe eta gisakoek, sarrera-prezio berezia izango dute: 5 edo 8 euro sarrerako. Taldekako sarrerak lortzeko, dagokion Udaleko Kultura Sailean aldeztu aurretik jakinarazi beharko da.

Egitaraua

Urtarrilaren 9an, Vaiven Teatro taldearen 'Victor Bevh: Blanco, Europeo, Varon, Catolico y Heterosexual' lanarekin hasi zen antzerki denboraldia. Hemendik aurrerako egitaraua duzue ondorengo lerrotan.



● **Urtarrilak 23:** 'Via Dolosara', Bastanis y la brisaren produkzioa, Beasainen, 22:15ean. Gaztelera.

● **Otsailak 15:** Gorringo taldearen 'Kutsidazu bidea Ixabel', Ordizian, 22:15ean. Euskaraz.

● **Otsailak 27:** Kanpingags taldearen 'Bazen behin... gutxi gora behera', Beasainen, 22:15ean. Euskaraz.

● **Martxoak 12:** Txalo taldearen 'Pakita', Ordizian, 22:15ean. Gaztelera.

● **Martxoak 26:** Pocaconya taldearen 'Humor sapiens', Beasainen, 22:15ean. Gaztelera.

● **Apirilak 2:** t(arte)an-ek ekoizitako 'Sonata segundu batean... eta piku', Ordizian, 22:15ean, euskaraz.

● **Apirilak 30:** Hika taldearen 'Ixa', Beasainen, 22:15ean, euskaraz.

Goierritarra Goierriko kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Eurpeaz kanpo:	urtean 36 euro

Jose Atanesen hilketan bertsio kontrajarriak



Abenduaren 19an ertzain batek tiroz hil zuen Alegian Jose Atanes beasaingarria. Gertaera horren inguruan, Atanesen familiaretekoek Herri-zaingo sailak emandako bertsioa gezurtatu dute.

Herrizaingo sailaren arabera, errepidearen beste aldean geratutako auto "susmagarri" bat ikusi zuten eta autoaren barruan zeudenek ere jarrera "susmagarria" zuten. Ertzaintzaren arabera, autoetako zenbait bidaiari atera eta eurretako bat (Jose Atanes) ertzainarekin "indarka" hasi eta ertzaina erasotzen saiatu zen. Ertzainak tiro egin zuen "nahi gabe".

Jose Atanesen hilketa gertu-gertutik ikusi zuten bere neskalagunak eta anaiak. Edurne Cornejo neskalagunaren esanetan, ez zen tirabirarik izan ertzainarekin eta tiroak ez zuen nahi gabekoa izateko itxurarik berak ikusi zuen tokitik, auto barrutik. Atanesen familiaretekoak abokatuarekin ari dira lanean, auzibidea prestatzeko.

Abenduaren 23ko Beasaingo udalbatzan, IU-EBk mozioa aurkeztu zuen, Atanesi gertatutakoa "oso larria" zela esanez eta guztia argitu bitartean gertakarian nahastutako agentea zerbitzutik ken zezaten eskatuz.

Markel Olano EBBn

EAJk barne mailan egin dituen hauteskunde onorioz, Euzkadi Buru Batzarra osatzen dutenen taldean egongo da orain ere Markel Olano beasaingarria.

Mariaje Arriaga etxean

Abenduaren 23an libre utzi zuen Frantziako Poliziak Mariaje Arriaga ordiziarra.

Ataungo Udalak herriko presoen bidaien gastuak ordainduko ditu

Horrela erabaki zuen Ataungo Udalak, abenduaren 30eko udalbatzarrean. Ataungo Etxerat-ek egin duen Elkartasun Ekimenaren emaitza izan da. Izan ere, Elkartasun Ekimen horren helburua, Udalari proposamen bat igortzea zen; hau da, herriko presoen bidaien gastuak bere gain hartu ditzala. Proposamenak ahalik eta herritar gehienaren babesa lortzeko asmoarekin, lagun talde bat etxetik etxera, baserri baserri, auzo auzo aritu da, ahalik eta herritarren atxikimendu gehien lortzeko. Astebetean 646 elkartasun sinadura lortu zituen Ataungo Etxerat-ek. Ataungo herriak 1534 biztanle ditu, 1336ko zentzua du. Herriko apaizez gain, herriko hainbat elkarte ere beraien elkartasuna adierazi dute ekimen honekin: Oargi, Artadi, Pelotazale, Kirol Elkartea, Murkondo Elkartea, Eskolako Guraso Elkarte Batzordea eta Haitzarri Elkartea. Azken elkarte honi barkamena azaldu nahi dio Ataungo Etxeratek, orain arte beraien ize-nik azaldu ez delako atxikimendu zerrendan. Batasunak, Bai Euskal Herriari, Ataundarrok, Herri Bilguneak, Askatasunak eta Elkarrik ere euren atxikimendua azaldu dute.



Ataungo Etxeratekoak Udaletxean.

Ataungo Etxerat-ek emandako datuen arabera, Ataunen gaur egun bi preso eta bi errefuxiatu daude: Aratz Gomez, Villabonako kartzelan dago, Euskal Herritik 870 kilometrora. 9 orduko bidaia egin behar da eta bidaia gastuak 120 eurokoak dira aldiko. Mila Ioldi, Granadan dago preso, Euskal Herritik 1.800 kilometrora. Bidaia gastuak 210 eurokoak dira, bidaia. Bestetik, Etxeratek Migel Angel Apalategi eta Xabier Arin erbesteratuak gogoratu nahi izan ditu, 30 urte badirelako herritik kanpo.

"Gizagabekeriari gizalegez erantzun"

Ataungo Etxerat-ek bidalitako oharra dioenez, "inongo tribunalak ezarri ez ditudun zigorra ordaintzera kondenatzen gaituzte. Ez nazioarteko legedietan, ez estatuko legedietan ere jasotzen du sakabanaketa politika neurri legala denik. Aitzitik, nazioarteko legedia eta estatuko legediak, preso eskubideaz ari denean, kondenatutako pertsonak bere sorlekutik ahalik eta gertuen dagoen presondegi batean bete behar duela zigorra jasotzen du behin eta berri. Euskal Herrian Gasteizko Ganbarak bi alditan ere gizalegekoa den eskubide honekin bat egin du. Erakunde ezberdin, zein alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozial ezberdinek ere bat egin dute eskakizun honekin. Presoen senitartekoek pairatzen dugun bidegabekeriari ari gara. Urteak eta urteak pairatzen dugun bidegabekeriari, hain zuzen ere". Villabona eta Granadako bidaiak sortzen dituzten arriskuak nabarmendu ditu Etxeratek. Dagoeneko 14 hildako izan direla gogoratu du bidaietan izandako auto istripuetan. "Presoen senideok erabaki politiko honen biktima gara".

Testuinguru honetan, Ataungo Udalak hartutako erabakia, "gure uste apalean gizalegezko erabakia da. Jakin badakigu, bizitzako beste arloetan bezala, erabaki eztabaidagarria izango dela; batzuentzat motz, besteentzat gehiegizkoa. Guztiak errespetagarriak. Baloratzen dugu Udalaren jarrera, izan ere batzuetan, erabakiaren tamainari erreparatu baino borondateari erreparatu behar zaiolakoan gaudela". Etxeratek eskerrak eman nahi dizkie, atxikimendua eman duten antolakunde politiko, elkarte, herritarrei eta Udalari.

"Pikuondo etxe okupatua desalojatu nahi dute"

Abenduaren 11n, Ertzaintzak desalojo ordena lortzeko prozesuaren hasieraren berri jakinarazi zien Beasaingo Pikuondo etxe okupatukoiei.

"Dirudienez, zikinak eta lapurrak izateagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak salaketa bat jarri digu. Badirudi Gipuzkoako Foru Aldundia ia ez dela gogoratzten etxea zein egoeratan zegoen gu iritsi aurretik, okupatu eta bizi berri bat eman aurretik", diote Pikuondokoek.

2001eko maiatzaren 18an okupatu zuten zenbait gaztek Pikuondo etxea. "Batetik, Beasainen urtetan eskatu dugun eta inoiz eman ez diguten Gaztetxe baten beharra asetzeko eta bestetik, edozein arrazoi dela ere, etxebizitza duin bat lortzeko ezintasuna zuen jendearentzako toki bat eskuratzeko". Ordutik gaur egun arte, hainbat eta hainbat ekintza egin izan dituzte: kontzertuak, filma proiektzioak, antzerkiak, gai ezberdinen inguruko hitzaldiak, tailerrak eta beste hainbat ekintza al-



ternatibo. "Bi urte t'erdia Beasaingo gizarte kapitalista honi beste ikuspegi eta beste modu ezberdin batera gauzak egiteko aukera ezin hobe bat eskaintzen. Zergatik joan derrigor gizarteak markatzen duen bide 'zuzen eta egokirik'? Beste alternatiba batzuk edukitzea gure eskubidea izateaz gain benetan gaur egungo gizarteak beharrezkoa duela iruditzen zaigu", diote Pikuondokoek.

Kapitalismoaren eta espekulazioaren aurka

Bestalde, "gazteok etxebizitza duin bat lortu eta kapitalismoaren eta espekulazioaren mundutik kanpo beste bizimodu alternatibo baten bidea aukeratzeko garaian pai-

ratzen ditugun zailtasun eta oztopoak ere salatu nahi genituzke. Izan ere, egungo gazteok ez dugu pisu edo etxe bat lortzeko banku batekin ezkontzea beste aukerarik. Oinarritzko eskubide den etxebizitza duina, luxu bihurtu dute".

Udalari salaketa ere egin diote Pikuondokoek. "Zeren gu denon ongizateaz hainbeste arduratzen direla egia bada, zergatik ez da udaletxeko inongo ordezkariarik gerturatu, benetan Pikuondon egiten diren ekintzetaz informatzera? Zergatik ez bultzatu benetan pertsonak kontutan hartzen dituen proiektu bat?"

Horrekin batera, autogestioan eta asanblearismoan oinarriturik ekintza sozio-kultural nahiz erreibindikatioak

burutzeko toki baten proiektuan sinisten duela diote Pikuondokoek.

Bestalde, zera argitu nahi izan dute: "Pikuondon bizi den hainbat jendek ez duela ez okupazioan eta ezta Pikuondoko proiektuan ere sinisten. Inongo idealik edo sinismenik ez duen jende honen gure martxa oztopatu besterik ez dute egin, geure etxean sartu eta mehatxu nahiz lapurretak eginez. Besteetan lanaz aprobetxatuz, dohainik bizitzeko intentzioa besterik ez dute. Horregatik, gu denok zaku berean ez sartzea eskertuko genizuke, benetan okupazioa bezalako kausa justu bat defendatzea ez baita delitu".

Pikuondokoek bidalitako oharren amaieran diotenez, "Desalojoa ematen denean, etxe honetan benetan egokitze eta konponketa lanetan parte hartu duen jende batek ez du aterperik izango. Gure etxeak hustuko dituzten arren, jakin dezatela ez dizkigutela gure ideiak eta ilusioa ezabatuko, benetan Mundu gaixo hau sendatzea posible dela ikusten dugulako".

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabea

Larraitz bidea

GAINTZA

943 88 98 48



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
943 88 09 47

Iurre Auzoa
OLABERRIA



Iñausti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN 943 88 46 28



ZEGAMA
OKINDEGIA

Eskuz egindako
ogi naturala

943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Charter, Oskarbi, Osiña, Orlegi eta Orlegi Natxo. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Rufi, Lasa, Viaña eta Osaki. **Ligorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda. **Legazpi:** Jabi harategia.

Landare hesiak jartzen dituztenek dirulaguntzak jasoko dituzte Goimenek hitzaldiak antolatu ditu landare hesien garrantziaz sentsibilizatzeko


Goimen Elkartek 'Zuhaitz eta zuhaizkak baserri eremuan' liburuaren aurkezpena egin zuen iazko urtean. Oraingoan, liburuaren jarraipena egitera datorren hitzaldi sorta antolatu du. Goimenek argitu digunez, liburuaren eta hitzaldion helburua, bertan jasotzen diren landareen erabilera bultzatzea da, "nekazal ikuspegitik zein gizarte ikuspegitik ere, onura ugariaren iturri direnez".

Baserritar eta batik bat landare zale denarentzat zuzendutako hitzaldiak dira. Hitzaldi-aurkezpena Landerlan Elkarteko kide direnen eskutik egingo da eta bertan zalantzak eta jakimina argitu eta informazioa jasotzeko aukera egongo da.

Hitzaldiekin batera, landaketa hauetan interesaturik daudenentzat, Goimenek jarritako dirulaguntzaren eskaera orria banatuko da, laguntzari buruzko xehetasunak emanez.

Landare-hesien garrantzia baserri eremuan

Heskaiei landaketarako dirulaguntzak



Egutegia

Ataunen, Ezkio Itsason eta Gabirian egin dira dagoeneko hitzaldiak. Gainerakoek egutegia duzue jarraian:

Urtarrilak 20, Zaldibian, Kultur Etxean, 19:00etan.

Urtarrilak 21, Idiazabalen, Kultur Etxean, 19:00etan.

Urtarrilak 22, Seguran, Kultur Etxean, 19:00etan.

Urtarrilak 23, Beasainen, Udaletxeko batzar aretoan, 19:00etan.

Urtarrilak 27, Zegaman, Kultur etxean, 19:00etan.

Urtarrilak 29, Legorretan, 19:00etan, Kultur Etxean.

Gabon pinuen bilketa egunak

Sasieta Mankomunitatea gabon pinuak biltzen ari da egunotan. Herri batzuetan bilketa egin badu ere, oraindik gelditzen da herriren bat edo beste oraindik biltzeko. Jarraian duzu egitaraua:

Ormaiztegi	urtarrilak 16
Olaberria	urtarrilak 19
Zaldibia	urtarrilak 19
Gaintza	urtarrilak 20
Ataun	urtarrilak 21
Ezkio-Itsaso	urtarrilak 23
Arama	urtarrilak 27
Altzaga	urtarrilak 27
Zerain	urtarrilak 28

Bildutako gabon pinuekin konposta egingo da, Ormaiztegin dagoen Konposgune enpresan.

GERTU abokatuak



- ▶ AHOLKULARITZA JURIDIKOA
- ▶ ENPRESA ZERBITZUAK
- ▶ ASEGURUAK

BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33

Alpe

SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27



☎ 943 88 20 07

BEASAIN



Ataungo haurtzaindegia ofizialki inauguratuta

Abenduaren 4an ireki zituen ateak Ataungo haurtzaindegiak. Haur Partzuergoa sortu da nekazal guneeetan haurtzaindegiak irekitzeko helburuarekin. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Nekazaritza Sailak bultzatu dute ekimena eta inaugurazio ekitaldian bi sail horietako sailburuak, Anjeles Iztueta eta Gonzalo Saez de Samaniego, izan ziren, Ataungo udal eta eskolako agintariek batera.

Irati Goikoetxea Satarka olerki lehiaketan irabazle

19 urteko beasaindarrak, 18 urtez gorakoen mailan, olerkien sailean, lehenengo saria jaso zuen Hondarribiako Udalak antolatutako Bordari eta Satarka literatur sariketan. 'Kaiera gorritik hitz odolduak' olerki sortari esker, 800 euro eta oroigarria jaso zituen Iratik abenduaren 21ean.



Zegama-Aizkorriko maratokia maiatzaren 23an

Hirugarren urtez jokatu da aurten Zegama-Aizkorri mendi maratokia. Munduko Koparako proba baliagarria izango da aurten eta horrek egutegian aldaketa ekarriko du. Orain arte, Aizkorriko Lagunen Egunean, uztailko lehenengo igandean jokatzeko bazen ere, aurten, maiatzaren 23an jokatu da. Aizkorriko Lagunen Eguna uztailaren 4an ospatu da.

Beasaingo San Silbestre kros lasterketa

200 korrikalari baino gehiago irten ziren 9 kilometroko lasterketa honetan. Afrikarrak izan ziren nagusi gizonen artean. James Moiben (26:07) izan zen lehena helmugaratzen, 2. David Twei (26:13) eta 3. Abdelhadi El Mouaziz (26:26). Emakumeetan berriz, Amaia Intsausti izan zen lehena (32:23), 2. Marietta Kio (32:38) eta 3. Rosi Talavera (32:56). Lehen herritarra Manu Hurtado izan zen.

Itsasondoko ziklo kros proba

Euripean eta lokatza artean jokatu zen abenduaren 28an Itsasondoko ziklo kros proba. Gipuzkoako txapelketa proba izan. Irabazleak hauek ziren, mailaz maila: Elitean Zugaitz Ayuso itsasondokarra; 23 azpikoetan Iñaki Calvo; juveniletan Gorka Izagirre ormaiztegiarra; nesketan, Lide Larrañaga idiazabalarra; eta kadeteetan Jon Izagirre ormaiztegiarra.

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488

OLABERRIA

ARRIETA

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

berriz aranburu

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

**3 BIFAMILIAR
SALGAI
ATAUNEN**

Zubara Eraikuntzak S.L.

☎ 608 177 775

Amsterdam dik, 1961 gko
azaroaren 5'ean

Nere Jaun ta lagun aundi ori,

Elkar ikusi degula illabete bat baño geiago igaro zaigu. Poz aundia artuko nuke danak ondo zaudetela jakingo banu. Barkatu onen beranduxe idazten dizudalako, lenago ere idatzi nai nizukean, baña nere eginbearrak eta zeregiñak zenbat diran bazeneki... Alaere, idatzi bear diedanetan lenbizietakoa zera zu. Beste askori ere idatzi bear diet, Don Ramo'i eta Gabiri'ko alkate jaunari, esate baterako, eta zorionsua etsiko det nere burua, eskutitz guztiak Urteberrieguna baño lenago idatziak baldin badira.

Orren maiteke, etxeko seme banintzan bezela, zure etxean euki nazunezkero, atsegingo zaizu, noski, nere berriak apurtxo bat jakitea. Esango dizut, ba, nola egin dedan Andaluzirako bidea.

Egun artan, zure etxetik irtenda, pixka bat itxoinda gero, berebil batek artu ninduen. Berebil onek "M" ekartzen zuelako, erderaz asi nintzayon kondutoreari. Euskalduna zala esan zidanean baztertu genduen erdera. Iruña'ra joaten zan, nik, orde, Gazteiz'era jo bearrik, Beasain'go surtidoren aurrean utzi ninduen. Joan egin zan, baña andik bost edo amar minutura etorri zitzaidan ber-bera, esanaz: "Sar zaite, konturatu naiz Alsasua'raño eramane zaitzakedala eta etorri naiz zure billa". Badakusazu? Amaika milla kilometro autoestopez egin ditut nere bizian, baña orrelakorik etzitzaidan beñere gertatu.

Beste batek Gazteiz'eratuta, antxe nengoan amabiak jotzean. Gazteiz'etik oiñez irten, ta bide-ertzean jarri nintzan itxoiten. Orduak joan, orduak etorri, eta

Rudolf de Rijk (Amsterdam 1937-2003) eta Goierri

Holandar hizkuntzalari eta euskaralari sutsuak iaz utzi gintuen, euskararen alde lan bikaina egin ondoren.

1959. urtean, Donostiako kaian zijoalarik Zubia monumentuarekin topatu zen eta han idatzia zegoena ez ulertzean, han inguruan zebilen emakume bati ea zein hizkuntzatan zegoen galdetu zion. Emakumeak, bertako hizkuntzan, euskaraz, idatzia zegoela erantzun zion. Harrigarria zen nederlandera, gaztele-ra, frantsesa, alemaniera, ingelera, esperantoa... zezkien gizonak han idatzia ez ulertzea. Hortik aurrera erabat murgildu zen euskara ikasten.

Goierriin babesa eman zion Ormaiztegiko Lasa familia abertzaleak, motor fabrikakoak. Nik Rudolf Gabirian ezagutu nuen eta nire lehengusu, Jesus Lette, Ibai-Ertzen bidez jaso nuen hemen duzuen Rudolfek Lasa familiari zuzendutako eskutitza.

Jokin Sarasola Martinez

ezer ez. Seiretan oraindik leku berean. Andik irtetzeko etsia nengoan ezkenik, eta ordu ontan asi nintzan "Arantzazu'ko Ama Birjiña lagundu zadazu" esaten. Eta ara, arrigarrik gauza benetan, bereala topatu nintzan bi Arantzazuko'ko praille gaztekin, autostopez Burgos'era joan bear zutenak. Ayekin izketan, eta lagun-duko didatela. Prailleak geldiazi zuten berebil eder bat, ayek Burgos'era eta ni Madrilera'raño eramateko. Zer deritzazu, mirari edo alatz txiki bat ote zan?

Biaramonean neke pranko ondoren Granada'ra eldu nintzan. Lau egun Granada'n igarota, beste bi egun bear nituen Donostiratzeko. Orain zearo asarretuta gelditzen dira nerekin Granada'ko nere adiskide batzuk, Andaluzia baño Euskal-lerria askoz atsegiñago zaidala aitortu diedalako. Zer egingo det, ba? Ez al da egia esan bear?

Urtarrillaren 15'ean, igandea zalarik, mugatik zear igaro naiz. eta 17'an autostopez Paris'era joan, an trena artu Amsterdam'era lenbailen iritxi nendin. Amaren poza errez usmatuko dezu. Bai ta aitarena ere etzan txikia izan! Zu ta zure emaztea eta aur guztiak nola zabiltzate orain? Bialtzen dizut tarjeta bat, Amsterdam'en biotza, zati txiki-txikia alegia, argazkiz daukana. Ea ikusten dezuten nun dagon geltokia. Idatzi au bukatzeko gara-ya eldu zaidanean, poz aundiarekin esker-rrak ematen dizkizutet, zu ta zure emazteari, ain arrera bikaña egin didazutelako. Eta esker auek nere partetik ez-ezik, nere gurasoen partetik ere bai. Eskerrikasko zuei. Ar zazu, nere Jaun ori, agindupuan daukazun onen biotzeko agurrik begirapentsuena.

De Rijk'tar Rudolf
Molenbeekstraat 22, Amsterdam



AUSOEGI

Urdaneta, 41
Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✱ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✱ Berogailuak
- ✱ Iturgintza
- ✱ Zeramika erakusketa
- ✱ Bainuko altzariak
- ✱ Erreforma osoak



Bizitza sinplearen alde: alperrikakoa saihestuz

1999 urtean globalizazioaren aurkako mugimenduak lehenengo aldiz kalera irten ziren Seattle hirian eta gaur egun hiri horretan ere "Bizitza Sinplearen aldeko Foroa" sortu da, estatubatuarren jokoerak eta norabidea aldatzea amesten duen taldea. Forororretan kontsumo gizaritari bide desberdinetatik muzin egiten diotenak elkartu dira: ekintzaile ekologistak, justizia sozialaren aldekoak eta mugimendu espiritualetan jarraitzaileak.

Foroko bultzatzaileek diote aurrerapena produktibitate eta kontsumoaren arabera soilik neurtzen dela, eta inork ez dituela kontutan hartzen Estatu Batuetako gizaritariaren egoera larria adierazten duten adierazleak. Horien artean garrantzitsuenetakoa, denbora falta jotzen dute, horrek ehun sozialaren desintegrazioan eta baita bizitza kalitatearen galeran ere eragin handiak dituelako. Horrela estatubatuarrek 1996tik aurrera planetako "langileenak" bihurtu dira, japoniarren aurretik. Urtero europarrok baino 350 ordu edo 9 aste gehiago lan egiten dute, batzuek beste, eta hartzen dituzten oporrak ez dira 2 aste baino gehiago izaten orokorrean; gainera lauetatik batek oporrak ere ez ditu hartzen.

Foro honetako partaideek Europa begiratzen dute inbidiaz, eta gurea bezalako "ongizate estatua" amesten dute, nahiz eta Europan berriz, badirudien hango ereduaz ezarri nahi dela.

"Oinarritzko beharrak
asetutakoan, zoriona ez
da handitzen material
ugaritasunarekin"

Zorionez Europan ere, jadanik badira mugimendu horren antzeko elkarteak: Alemanian, Suezian, Noruegan, Suizan, Belgikan, Eskozian eta Holandan, borondatezko sinplizitatearen beharraz konbentziturik daudenak, eta baita aldaketa soziala norberaren aldaketarengatik hasten dela diotenak.

Aurreratuenak Holandan dira, politika sozial eredugarria duen estatuan, baina han ere laneko presioa, zorrak eta eredu hiperkontsumista ondorio latzak sortzen ari dira. Europan Batasuneko produktibitate handiena hantxe ematen da, eta estresarekin lotutako gaixotasunak jadanik izurrite bihurtu dira. Roterdameko Erasmus Unibertsitateko Ruud Veenhoven soziologo eta zorionaren arloko adituaren ustez, "Oinarritzko beharrak asetutakoan, zoriona ez da handitzen material ugaritasunarekin. Aberastasun maila ezberdinetako pertsonen artean, zorion mailan desberdintasun txikia ematen da. Gainera frogatua dago, materialismoak pertsonen ongizatea makaltzen duela eta alderdi oso garrantzitsuak alde batera uzten dituela, maitasuna edo osasuna adibidez".

Illo horretatik Espainian eta Italian aspalditik Elkartasunezko Ekonomiaren Balantzeak funtzionatzen ari dira. Balantze hauen filosofiaren arabera, bizitza sinplea, gure erosketako saskitik has daiteke eta ekonomi globalean eragin. Balantzeak osatzeko egiten diren gastuak jasotzen dira: ohizkoak eta bestelakoak. Bestelako gastuen atala, justizia sozial edo ingurumenarekiko irizpideez egindako erosketek osatzen dute (bidezko merkataritza edo nekazaritza ekologikoko erosketak, adibidez). Helburua poliki, hilerro bestelako gastua igo eta ohizkoa gutxitzea da.

Horrelako ekimenen bitartez bizitzeko era osasungarriago, beteago eta solidarioagoak sustatzen dira, gaur egun planetaren eta gizakiaren egoera larriak eskatzen dituenak.

Eduardo Huesa

JAKIN BEHARRKEAK

✓ Bizitza Sinplearen aldeko helbideak:

Bizitza Sinplearen Foroa:
www.simplicityforum.org

Simplicity Network:
www.simpleriving.net

Elkartasunezko Ekonomiaren Balantzeak:
www.nodo50.org/besos

✓ Aranzadi Elkarteak **Aralgo Parke Naturaleko** **armiarma** ezagutzeko eginko ikerketan 50 espezie aurkitu dituzte eta horietako bost berriak dira iberiar penintsulako faunaren katalogorako.

✓ Urtean zehar ibaiaren behealdean egon diren **amurruak** azarotik abendura bitartean ibaian gora egin dute, hondo harritsua duten leku fresko eta garbien bila. Bertan emeek isats-kolpe zuloa ireki eta arrautzak errungo dituzte; arrak hazia isuriz ernalduko ditu. Ondoren korranteak amurruak helduak beren jatorrizko lekuetara eramango ditu.

✓ **Hawaiko Kilauea bolkanak** egunero botatzen dituen 1.400 tona sufre dioxidoak laino azidoa sortarazten du inguruan.

✓ Oso garrantzitsua da **hartz arrearen kontserbaziorako** negurako jana eskuragarri jartzea. Horregatik, Asturiasko zenbait bailaretako soroetan hartzentzako artoa eriten da

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Beasaingo kirol gune berriak

Guztiz berritzaileak diren barruko igerilekuak

Gaur egun Beasaingo kanpoko igerilekuek osasun araudirik betetzen ez dutenez, goitik behera berritu beharrean daude. Ildo horretatik, kirol gune berri osoa egitea erabaki du Beasaingo Udalak. Igerileku estaliak, inguruan era honetako bakarrak, protagonismo berezia izango dute. Guztiazen helburua, beasaindarren eta goierritarren bizi kalitatea hobetzea da.

Antzizar kiroldegia bera ez da askorik aldatuko. Denbora berrietara ondo egokitu eta kontserbatu baita. Hori bai, kanpoko itxura zertxobait txukundu eta gaur egun Loinatz futbol zelaia dagoen lekuan, igerileku estaliak gehituko zaizkio. Eraikin berriari eta zaharrari osotasuna emango zaio sarreran egingo den kristalezko kuboarekin.

Oraingo kiroldegiko pilotalekua eta kantxa ez dira aldatuko. Gaur egun dagoen barruko igerilekua kendu eta bertan fitness eta aerobik-erako aretoa jarriko dute. Hortik aurrerako guztiak, berrikuntzak dira: futbol zelaia lekuz aldatu eta norabide egokia emango zaio; kanpoko igerilekuak bota egingo dira eta igerileku berriek beste itxura bat izango dute, gune berdeez inguratutik; teniseko eta padleko pistak ere egingo dira. Hurrengo orrian dituzue argitasun zehatzak, plano bidez.

Barruko igerilekuen guneak bi altura ezberdin izango



Peio Garaialde, Beasaingo Udaleko Kirol eta Gaztedia zinegotzia.

ditu tenperatura ezberdinak mantetzeko, 4 eta 8 metrokoak. 4 metrokoen gainean, termalen gunearen gainean, beste pisu bat eraikiko da, 1800 metro karratukoa. Momentuan ez da ezer egingo, beharren arabera moldatzen joango dira.

Kirol gune proiektu erraldoi honetan ikusten ditu hutsuneak Peio Garaialdek. Alegia, Atletismoko pistarik ez dago, eta futbol zelaiaren bueltan ez dago horretarako aukerarik. "Udala aztertzen ari da, Igartza futbol zelaiaren eta Guipuzcoana tartean dagoen tarte batean, 120 metroko espezializaziorako gune bat egitea".

90 milioi euro

90 milioi euroko aurrekontua izango du obra honek. Finantzeketari dagokionean, zera esan digu Peio Garaialde Kirol eta Gaztedi zinegotziak. "Egoerarik txarrean jarri du burua Beasaingo Udalak; hau da, inola dirulaguntzarik gabe, udalak berak obra guztia ordaindu beharko lukeen kasua. Besteen laguntzan pentsatuz ezin gara jarri. Baina komentzitura gaude obra ondo aterako zaigula.

Gizartean izango duen arrakasta onarekin, aurrera begira, udaletxearentzat errentagarria izango den obra izango da".

Maiatzean aterako da obren adjudikazioa. 2004ko irailean hasiko dira lanak eta bi urte beharko dira, gehieenez, lanak amaitzeko.

Dena den, oraindik erabakitzeke eta zehazteko lau puntu gelditzen zaizkio Beasaingo Udalari, nahiz eta proiektuan bertan eraginik ez izan. Batetik, eraikuntzaren materiala aukeratzeko dute, altzairu erdoilgaitzekoa edo egur modernozkoa izan. Bi produktuak ere Goierrin bertan egiten dira. Igerilekuen materialaz ere kezka bera dute, altzairuzkoak edo hormigoizkoak egin. Hirugarren puntua, uraren tratamenduari buruzkoa da. Ur kloratua edo ozonorizatuak jarri erabakitzen ari dira. Azkenik, energia berriztagarriez baliatu nahi dute eta puntu hori ere zehazteko dute.

Filosofia berria

Orain arteko igerileku kontzeptuarekin goitik behera puskatuko dute Beasainen. Alemania aldean igerileku

eredu bat baino gehiago ikusi dute, Madrilén ere bai. Europako filosofia egokiago ikusita, Beasaina moldatu dute proiektua. Kirola, aisia, osasuna eta baloreak bermatzea izango du helburu igerileku gune honek. "Familia osoarentzako gunea da, guztien bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin. Belaunaldien arteko lotura bermatu nahi dugu. Zaharren eta gazteen arteko harremanak sendotu nahi dira, normaltasunez, toki berdinean elkartuz. Alemanian arazo hori ikusita, zaharrek eta gazteak elkartzeko lekuak bultzatzen ari dira. Belaunaldien arteko lotura puskatzen ari dela ikusten ari dira, eta orduan, beraien filosofia da elkarrekin egoteko lekuak sortu eta elkarriketarako eta harremanak sortzea".


Peio Garaialdek aurrera begirako proiektua dela azpimarratu du. "Aurrerakoiak izateko, kalitate bat behar dugu, familiaren eta lagunen artean harremanak sendotuz eta fisikoki eta psikologikoki pertsona errekuperatzeko aukera izanez. Aurrerakoa izatea da, gehiengo batentzat zerbitzu bat eskaintzea, hau da, familientzat. Adinekoentzat ere, eman litekeen terapiarik onenetarikoa eskainiko dugu".

Goierri osorako proiektua

6.700 bazkiderentzako aukera izango du Antzizar kiroldegia. Orain arte bezala, bazkide egiteko aukera edo nork izango du, ez beasaindarrek bakarrik. "Proiektu hau ez da Beasainentzat bakarrik, Goierri osoarentzat izango da".

erriaren proiektua prest

ilkuek protagonismo nagusia izango dute



Kirol gune berria

1.- Sarrera: Kristalezko kubo bat eraikiko da, eraikuntza zaharra eta berria uztartzeko.

2.- Aldagelak. Mistoak izango dira. Beste aldean taldeentzako aldagela izango da.

3.- Termalen gunea. Sauna handi bat, bainu turkoak, lurrunezko bainuak, izotz dutxa, erlaxatzeko oheak, zorrotada ezberdineko dutxak...

4.- Erreabilitaziorako igerilekua. Ur zorrotada ezberdinak, atsedenerako eta masajerako oheak...

5.- Umeentzako igerilekua.

6.- Irakaskuntzarako igerilekua.

7.- Igerileku handia. Bi gunetan egongo da bereiztuta. Batetik,

25 metro luzeko 7 kaleko igerilekua, eta bestetik, altuxeago egongo den jaccuzia, erreka, ur zorrotaden kañoiak, perretxi-kuak...

8.- Txirrista. Txirrista handia, frenatzeko lekuarekin. Azken modako txirrista izango da.

9.- Kanpoko igerilekuak. Hauek barrukoekin lotuta egongo dira, gune berdeez inguratua. Kanpoko igerilekuek dekorazio berezia izango dute. Harkaitz artifizialekin-eta giro goxoa sortzen saiatuko dira.

10.- Padleko 4 pista.

11.- Futbol zelaia. 2.A mailan jokatzeko neurriak dituen futbol zelaia izango da, tribuna eta guzti.

12.- Tenisteko pistak.

iñAUSTI

KARROZERIA
 N-1 errepidea, lurre auzoa
 ☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

ONGI ETORRI
taberna - jatetxea
 Eguneroko menua Afariak
 eguerdi eta gauetan bataioak
 larunbatetan ere bai jaunartzeak
 Tel: 943 88 99 07
 Oriamendi, 40 BEASAIN

OSTEOPATIA
 Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97
 ● LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
 ● ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
 ● TENDINITIS, KIROL LESIOAK.
 Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
 Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN

Mikel Luloaga Bai Euskal Herriari-ko eleduna: "Goierriin 1.175 EHNA tramitatu dira, honek erabilera bultzatzea eskatzen du"

A benduaren 13an eta 14an Euskal Naziotasun Agiria (EHNA) egiteko aukera izan zen. Goierriin Udalbiltzako hautetsiek 1.175 agiri berri tramitatu zituzten eta aurrerantzean ere egiteko aukera izango da. Ekimen hau aurrera eraman duen Bai Euskal Herriariko eleduna da Mikel Luloaga zaldibitarra.

Abenduaren 13 eta 14 EHNA egiteko kanpaina burutu zenuten. Zer dela eta?

Azken 2-3 urtetan EHNA egiten ari zen. Tartean Udalbiltzaren aurkako erasoak egon da, eta gai hau nahiko lozorroan zegoen eta kanpora ater beharra zegoen. 13 eta 14an lortu da hori dena kaleratzea. Eztabaida politikoa ere naziotasunaren inguruan doa, Ibarretxe plana, autodeterminazioa... horrek denak lagundu du Euskal Herrietasunaren aldarrikapen honetan.

Abenduaren 13 eta 14koa aurrerapauso garrantzitsua izan zen, adibidez Goierriin 1.175 EHNA tramitatu ziren. Hor ikusi zen nolabaiteko ezingon bat bazegoela, jendeak bazuela beharra.

Hor bukatzen al da Ba Euskal Herriari taldearen kanpaina?

Abenduko ekimenak, orain, etengabeko aurrerapausoak ematea eskatzen du. Oraindik ere EHNA asko ari da tramitatzen eta honek erabilera bultzatzea eskatzen du. Egunerokotasunean, gauza txi-

kiak eginez demonstratu behar da tresna erabilgarria dela. Horretan badaude esperientziak: Azpeitian, Ondarruan eta Lekeition normaltasunez bizi dira EHNArekin.

Orain arte nahiko fokalizatua egon da EHNAren erabilera, baina egin diren berriekin Euskal Herri guztira zabaltzeko oinarri sendoa jarri da. Egiteari utzi gabe erabilera bultzatu behar dugu orain.

Azken helburua EHNArekin bizitzea da. Donostiako Gaska kiroldegian egindako ekitaldian hainbat konpromiso medio Euskal Herrian bere osotasunean bizitzerik ez zuten 14 herritarrek EHNArekin soilik bizitzeko erabakia jakinarazi zuten. Honek hainbat zailtasun sortzen dizkie, etxea alokatu, kontu korrontea zabaldu, lana aurkitu edo jubilatzekeo garaian. Pixkanaka, zirrikituak aurkitzen, lorpen txikiak eskuratzen ari dira. Adibidez, pertsona bat lanpostu publikoan aritzea.



Mikel Luloaga zaldibitarra.

Zeintzuk dira EHNA egiteko arazoak?

Euskal Herria nazioa izanik baditu izatea eta nortasuna. Guzti horri oinarria jarri behar dio Euskal Herriko biztanleriak. Ezin pentsa liteke Estatu Espainolak edo Frantsesak Euskal Herria nazio

bezala onartzea bertako herri-tarrek adierazpen bat egin gabe. Udalbiltzak bere garaian abian jarri zuen egitasmoak hori zioen.

Gutako bakoitzak euskaldunak garelako egiten dugu EHNA eta Euskal Herriak eskubide osoko nazioa dela aldarrikatzen du. Hortik lotu genuen abenduko kanpainako lema 'Ni naiz, gu gara'.

Non erabili daiteke EHNA?

Erabiltzeko maila ezberdinak daude. Zenbaitzuk onartua izango zaiela dakiten lekue-tan bakarrik erabiliko dute. Beste batzuk, aldiz, leku guztietan erabiliko dute, nahiz eta aurretik jakin ez zaiela onartuko. Gu saiatuko gara EHNA non onartzen duten jendeari jakinarazten. Goierriin inon ez dago arazorik erosketak egiterakoan EHNA erabiltzeko. Gure helburua naziotasun kontzientzia duen guztiak erabiltzea da, ez du zentzurik erabiliko ez den tresna bat eskuratzea.

Aurretik ere egon dira euskal nortasun agiriak. Zein da ezberdintasuna?

Lehen zegoen euskal nortasun agiria erakunde pribatu batek ematen zuen, ez zuen inongo ofizialtasunik. Duela urte batzuk, Euskal Herrian lehen nazio instituzioa sortu zen, Udalbiltza. Bai Euskal Herriarik 125.000 sinadura bildu zituen Udalbiltzari agiri ofizial hori tramitatu zezala eskatuaz. EHNA ez da 'nortasun' agiri bat, derrigorrez egin beharrekoa; naziotasun agiria da, borondatez egiten dena.



EHNAren tramitazioa Ataunen.



IZKIÑA

Jatetxea

943 802 169 - 943 800 251 - SEGURA

Eguneroko menua
astelehenetik
ostiralera: **7 euro**

Ospakizunak Karta
Menu bereziak Sagardotegiko
menua



Lan bertikalak S.L.

Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak
Pintura
Teilatuak
Tximiniak

...

Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN

MULTIOPTICAS

Ondo
ikusteko
behar
ditudalako

bonardi
armazoiak

35€

Nire
lanerako oso
garrantzitsuak
direlako

bonardi
armazoiak

35€

Aldatzea
gustatzen
zaidalako

bonardi
armazoiak

35€

LEHENA ZERBITZU OPTIKOETAN

Ibargarai 16
Tel. 943 76 15 75
BERGARA

J. Carlos Guerra 1
Tel. 943 79 29 95
ARRASATE

J.M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
ORDIZIA

Bidebarrieta 2
Tel. 943 20 05 22
EIBAR

Esmalteria Plaza
Tel. 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel. 943 63 99 01
IRUN

San Frantzisko, 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA



orkli, s.coop.



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxa: (943) 16 08 23

1.800.000 euro 2004rako

Ia bi milioi euroko aurrekontua du Idiazabalgo Udalak hasi berri dugun urterako. Aurrekontua onartuta dago, eta dirua zertan erabiliko den ere zehaztuta du Udalak.

Aurrekontuaren hamarretik zortzi, gastu arruntetarako erabiliko da (langileei ordaindu, udalak eskaintzen dituen zerbitzuak ordaindu -ur hornidura, eguneko zentroa...-). Gainerakoa, 10 eurotik 3, inbertsioak egiteko erabiliko dute.

Inbertsioen atalean, Aita Iparragirre Herri Eskola handitzea, Donatonetik Errotara

arteko espaloia egitea edota Arantzazumendiko larreak hobetzea dago aurreikusita.

Aurrekontua, ordea, erabat itxi gabe dago. Udalak, martxoan jakingo du iazko urteak zenbaiteko soberakina utzi duen. Diru horrekin (emaitza ona espero dute) zinema areto berria egiten hasiko dira. Aurrrera begira udalak buruan dituen proiektu handiagoak aztertzen hasteko ere erabiliko dute kopuru hori. Besteak beste, udaletxea Kultur Etxea dagoen lekura eramatea pentsatzen ari da Udala.

Xabier Urteaga

Bielorrusiako haurrak

Udan, etxean hilabete t'erdiz Bielorrusiako haurrak hartu nahi dituenak, urtarila bukatzerako eman behar du izena. Izaki, Gobernuz Kanpoko Erakundeak antolatzen ditu egonaldiak. Iaz 12 neska mutiko egon ziren Goierriko hainbat herritan. Informazio gehiago nahi duenak edo izena emateko, telefono hauetara deitu daiteke: 943 18 21 00 (Idiazabalgo Udala) eta 943 80 03 28 (Asun):

Txakur jabeei

Herri gunean txakur kakak non nahi agertzen direla eta kexak jaso ditu Udalak. Aurretik ere arazoari aurre egiten saiatu dira, baina ez dute emaitzik lortu. Hori dela eta, Udala, neurri berriak hartzea aztertzen ari da. Herri guneko etxeetan bizi diren txakur-
ren errolda egitea pentsatzen ari dira. Txakur horien datuak bilduko dituzte horretarako.

EHNA

'Bai Euskal Herriari' ekimenak EHNA eskuratzeko jarri duen kanpaina Idiazabala ere iritsi da. Abenduaz geroztik Euskal Herriko Naziotasun Agiria egiteko aukera dago herrian. Otsailera arte, asteazken goizetan, 10etatik 12etara izango da horretarako modua udaletxean. EHNA egiteko errolda agiria, 3 argazki eta 15 euro eraman behar dira.



Badatoz Sanblasak

Urtarrilaren 23an hasiko dira aurtengo Sanblasetako jaiak. Aspaldiko jai luzeenak izango dira aurtengoak. Bederatzi egunetan daude banatuta ekitaldiak. Lehendabiziko asteburuan, kirola izango da nagusi, krosa eta ziklo krosa jokatu baitira. Hau da, Sanblasetako lehendabiziko asteburuko egitaraua:

Urtarrilak 23, ostirala

23:00etan, Pilotalekuko tabernak antolatutako kontzertua.

Urtarrilak 24, larunbata

10.30ean: hasita Ziklo krosa

18:00etan: Herriko Futbito txapelketako final aurrekoak

18:30ean: Sagardo dastaketa herriko plazan Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitalariek alaituko dute giroa.

23:30ean: musika plazan, herriko tabernariak antolatuta.

Urtarrilak 25, igandea

11:00etan: Idiazabalgo XXIV. Herri Krosa

15:00etan: Herriko Plater Hausketa Olaberriko tiro eremuan.

17:00etan: Umeen danborrada

18:30ean: Buruhandiak eta musika plazan.

Pregoi lehiaketa

Festa Batzordeak, pregoia egiteko lehiaketa antolatu du. Proposamenak urtarrilaren 22rako aurkeztu behar dira udaletxean. Aukeratutakoari 300 euroko saria emango diote.

Krosa

Idiazabalgo Herri Krosean parte hartu nahi dutenek izena emateko modu ezberdinak dituzte. Urtarrilaren 21a baino lehen 943 187 100 telefonora deituta (Irantzu), edo www.herri-krossa.com helbide elektronikoan. Lasterketa egunean plazan egongo da izena emateko aukera.

Lasterketa goizeko 11etan hasiko da, benjamin, alebin eta infantilentzat. Eguerdian helduen txanda izango da. Neska kadeteak 2 km egin beharko dituzte, mutil kadeteek 4 km, emakume helduek 6 km. Eta gizonetakoek 10 km.

Astotxo festa

Urtarrilaren 8an Etxabarri eta Mallabiatik etorri zitzaizkigun Asto-proba erakustaldia egiteko asmoz bertako ordezkariak. Hasiera arratsaldeko 6etan eman zitzaion herriko plazan. Apustuaren ikusmina nabarmena suertatu zen ikuslegoaren artean. Bi asto ziren, Moro eta Gindo. Bakoitzari 550 kg-ko zama ezarri zioten eta 20 minuturen barruan ahalik eta untze (plaza) gehien nork egiten zuen izan zen ardatz nagusia. Irabazlea Moro suertatu zen 52 untze-ekin, Gindok 37 egin zituen bitartean. Mororen nagusia Saltzibar ezizenez ezagutua da, bestea berriz Axier Abendibar mallabiarra.

Honen ostean hiru neskak egin zuten erakustaldia, 27 urte dituen Fuil astoarekin. Honi ezarritako zama 110kg -takoa izan zen eta lortutako untzak 18 izan ziren. Honen nagusia Angel Gallastegi.

Astoek beraien prestakuntza edo atsedena hartzen zuten bitartean, txarangak plazako giroa alaitu zuen. Asto proba hau bukatu zenean kontzertua izan zen astoaren oroimenean elizan. Bertako partaideak; Izturi musika taldea, Garikoitz Mendizabal txistularia eta Andoni Egaña bertsolaria izan ziren.

Astotxo eguna

Igandean berriz Astotxo eguna ospatu zen asto-diana batekin. Goizeko 10etan hasi eta herri guztian zehar ibili ziren. Jarraian Meza Nagusia Zistertarren komentuan Lazkao abesbatzaren partaidetza-ekin.

Era berean Gipuzkoako V. Asto erakusketa, lehiaketa eta karro ibiltaria Euskadi Plazan. Eguerdiko 12etan berriz, Gipuzkoako asto autoktono ederrenaren eta dotoreenaren aukeraketa izan zen. Denera 123 asto izan genituen lehiaketan. Politena Adunako Karlos Zabalak eraman zuen eta asto autoktonoa berriz Elgoibarkoa izan zen, Garagartza baserrikoa. Epaimahaia 5 pertsonen osatua zegoen. Bi albaitari, M.Jesus Insausti, Ramon Mujika eta Portugaldik inguratu zen albaitari bat. Festa honen inguruan apustu eta errifak ere izan ziren.

Egunari amaiera emateko Egiptorako ihesaren kale-antzespena izan genuen Lazkao-Txiki plazan. Bertan 150 gazte izan ziren parte hartzen eta 1652an sortu zen festari bizia eman zioten.

Areto futbola

Opor luze batzuen ondoren Errotaundiko mutilek ezin izan zuten garaipen batekin hasi urte berriko lehen partidua. Oraingoan Egiako taldea zuten aurkari eta 4-2 emaitzarekin bukatu zuten. Hurrengo partidua Urretxuarren aurka izango dute larunbat arratsaldean kiroldegian.

Futbola

Pasa den aste bukaeran hasi zuten igoera faseko lehen partidua eta lehen zatia nahiko berdindua izan bazen ere bigarreneko nagusi izan ziren etxeko jokalariek. Azken emaitza 3-0 izan zen eta hurrengo Intxaurren taldearen aurka izango dute. Azpimarratu ikustera joan zen jendetza eta bertan sortu zen giroa.

Mus Moskorak

Abenduaren 20an jokatu zen XXIII. Mus txapelketa. Bertan 123 bikotek parte hartu zuten eta irabazleen artean lazkaotar bat suertatu zen. Garaileak, Kepa Auzmendi eta Manu Soto izan ziren. Bigarren postuan berriz, Montxo Bitorro eta Antonio Karmón geratu ziren, azken hauek donostiarrak ziren.

Igeriketa terapeutikoa

Aurreko urtean lortu ez bazen ere, aurtan ikastaro berri bat ateratzeko asmoa izan da. Honen helburua, arazoren bat izan eta igeriketaren bidez zuzendu eta hobetzeko aukera dagoen pertsonen zuzentzea da. Bete beharreko baldintzak gutxienez hiru hilabete ordaindu behar dela. Ordutegi aldetik; goizeko 11etatik 12etara izango da. Egutegia berriz; astelehena, asteazkena eta ostirala. Astelehena eta ostirala igerilekuan eta asteazkenean berriz lehorrean. Irakasleak Mariaje Blanco eta Kristina Heras izango dira. Prezioak berriz; 37,42 euro hila-beteko kiroldegiko bazkideak. 47 euro hila-beteko kiroldegiko bazkide ez denarentzat. Kurtsoa hasi aurretik mediku azterketa egingo da lehen aipatutako balioen barruan sartzen delarik.

Urtea amaitzearekin batera hainbat kiroldegiko erabiltzaile edo bazkideri ere bazkidetza amaitzen zaie. Informazio edo zalantzaren bat izanez gero kiroldegira inguratu dezakete.

Aitor Tello

ZUZENKI
AHOLKULARITZA

Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzaren salmenta:

Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta:zuzenki@euskalnet.net Elozegi, 16 LAZKAO

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA



Taupadak Beasainen

Taupadak Gobernuak Kanpoko erakundeak Beasainen egoitza izango du hemendik aurrera. 2002. eta 2003. urteetan, Udalak emandako bekari esker, Leire Irastorza eta Jone Mateos lehengo eta Itxi Mateos eta Eider Lopetegi bigarrenen, Bolivian izan ziren Taupadak GKEren formakuntza proiektua gauzatzen. Taupadak-ek Irunen du egoitzak. Etxetik bertatik lanean jarraitu nahi eta herrian Taupadak GKEren lana egin nahi izan dute lau gazteek.

660056113 telefono zenbakia da edozein informaziorako.

Amazonia boliviarrera mugatzen du bere lana Taupadak-ek. "Amazonia boliviarrereko indioak betidanik bizi izan diren lurraldearen legezko jabeetan bihurtu nahirik dabilta. Zeren, apurka-apurka, zuriak lur horietaz jabetzen joan dira bertako panpa abeltzainak edota basoetako egur preziatuak bereganatuz. Taupadak-ek beraien aldarrikapenekin bat egin du, indigenen zilegizko eskubideak defendatzen dituztelako", diote Taupadak-ekoek.

AMA LUR
2003ko ABENDUA • AMA LUR



Ama Lur aldizkaria banatu da etxetik, Taupadak-en berri emanez.

Hezkuntzari garrantzia nagusia emanez, proiektu ezberdinak ari da gauzatzen Taupadak, batez ere Gipuzkoako udaletatik lortzen duten dirulaguntzekin. Taupadak-etik, bertako berri eman nahi da herrian, informazioa zabalduz lor baitaiteke sentsibilizazioa.

Taupadak GKErentzat dirua biltzea helburu den ekimen bat bada herrian une honetan. Amazonia boliviarrereko argazkiz osaturiko 2004ko egutegia salgai dago herriko hainbat taberna eta liburudendetan.

Nagusilaneke zerbitzu berria eskainiko du

Nagusilan, konpainia behar duten pertsoenei laguntzeko sortu zen. Konpainia, etxean bertan, Arangoiti egoitzan edo kalean paseatuz eskaintzen dute. Orain, beste zerbitzu mota berri bat sortu dute. Asmoa, behar dutenei medikuaren kontsultara laguntzea da. Herriko anbulatoria, Zumarragako edo Tolosako ospitalera edo behar den lekura. Argi utzi nahi dute dena den, zerbitzu hau benetan norbaiten laguntza behar dutenentzat eta familiartekoekin joan ezin dutenentzat bakarrik izango dela. Laguntasun mota horren premia dutenek, gutxienez egun bat lehengo deitu behar dute Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzura (943 028075) eta laguntasuna zertarako behar duten esan.

Garinen San Sebastian jaiak

Urtarrilaren 24an eta 25ean San Sebastian festak ospatuko dituzte garindarrek. Hona hemen prestatu duten egitaraua:

Urtarrilak 24, larunbata:

13:00etan: Kanpai-bueltakoak eta altxafuegoak, auzoko festen adierazgarri.

14:00etan: Herri bazkaria, Muñogain auzo elkartearen.

Ondoren: Mus txapelketa, bazkaldarren artean.

18:00etan: Haur jolasak, auzoko pilotalekuan: aulki-jokoa, koskol biltzea, zaku-karrera, eta abar.

20:00etan: Elizan, bertso jaialdia: Ekaitz Goikoetxea, Iker Zubeldia eta Bixente Gorostidi bertsotan. Gai jartzaile eta olerkiak errezitatzen, Irati Goikoetxea. Tartean, Iñaki Lasak bertsozaharrak abestuko ditu, gitarraz lagundurik, eta Ander Mujikak soinu txikia joko du, Aitor Martin Urteaga panderojole duela.

Urtarrilak 25, igandea:

10:30ean: Goiz eresia Beasaingo Udal txistulariekin.

11:00etan: Meza nagusia. 'Misa Angelis' abestuko da.

Meza ondorenean, zaharrei omenaldia: Gipuzkoako zaharrena den 107 urteko Plazida Intxausti herritarrari eta gainerako omenduei loreak, aureskua eta eskuerautsiak eskainiko zaizkie.

12:00etan: Beasaingo Ostadar taldearen dantza saioa, plaza zaharrean.

12:15ean: Asto lasterketa ikusgarria, auzoko kaleetan.

13:00etan: Pilota partidua, gatzetxoaren artean.

Egurdian zehar, Beasaingo Udal txistulariek joko dute.

Asmubek antolatutako ikastaroak

Ordenadore bidezko mekanografia. Otsailean emango zaio hasiera eta asteazken, ostegun eta ostiralean emango dituzte klaseak goizeko 9,15etatik 10,15etara.

Photoshop. Argazkien tratamendua. Otsailean emango zaio hasiera eta klaseak, asteazken eta ostegunetan emango dira goizeko 10,30etatik 12etara.

Ilu Valverderi omenaldia

75 urte bete berriak dituen emakume honek, omenaldia inork baino gehiago merezi omen du, arte plastikoetan eta eskulaneetan dituen lanak mota guztietakoak eta ugariak direlako. Pintura-elkarteko presidentea da. Pintura-lanetan, labore-lanetan, sukaldaritza-lanetan eta zeramika-lanetan ibiltzen da Ilu Valverde. Otsailaren 3a bitarte, bere lanak ikusteko aukera izango da Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Aurtzaka dantza taldeak 25 urte

Aurtzaka dantza taldeak izen honekin 25 urte bete berri dituela eta., urte osorako zenbait ekitaldi prestatu dituzte. Otsailean esaterako, plaza dantzen ikastaroa izango da. Suelto dantzak, Larrain dantza, mutil dantza... Jendearen interesaren arabera taldeak osatzeko, otsaila baino lehen jarri harremanetan Aurtzakoekin. 943086977 telefono zenbakian egin daiteke izen ematea (mezua utzi zuen izen-abizen eta telefono zenbakiarekin) eta baita info@aurtzaka.com helbidean ere.

Nekane Altuna

San Sebastian 25ean

Santuaren eguna 20an bada ere, hurrengo jaian ospatuko da elizkizuna izen bereko ermittan. 12:00etan, auzoan hildakoen aldeko meza emango da. Ondoren, hamaitaketa eskainiko dute auzotarrek (udalaren laguntzaz).

Txalaparta ikastaroa

16 urtetik gorakoentzat txalaparta ikastaroa antolatu du Tobera Musika Eskolak. Otsailean eta martxoan zehar, ostiraletan 19:00etatik 21:00etara, guztira 16 ordu. Matrikula, 25 euro. Izena emateko aukera zabalik urtarrilaren 23 arte. Informazio gehiago 943-801570 telefonoan.

Kutxa udaberrirako

Abenduaren 23tik, Kutxaren sukurtsala eta kutxazaina Unzurruzaga kaleko 7-9 etxabe- an daude. Aurreko lokala erabat berrituko dute, besteak beste, bunkerra kenduz, bigarren bulegoa eraikiz eta aire egokituia jarritz. Obra, martxoaren erdi alderako amaitua egotea espero dute.

Bola 25ean

Gipuzkoako erregularitate txapelketako bigarren saioa Seguran jokatu da, urtarrilaren 25ean Txoritegi bolatoki- an. Goizez, 10:00etatik 11:30era eta arratsalde- z, 16:30etik 17:30era.

Taldeakako txapelketan bigarren. Urtarrilaren 4ko Gabiriko eta 11ko Herrerako bi saioen ondoren, 11 talde partehartzaileraren artean, 2. gertatu ziren segurarrak zerainda- rren atzetik.

Kirol eskolarra

Asteburuan etxean: Tenisa: os- tiralean, 16:30ean, neska ale- binak ataundaren kontra. **Pi- lota:** Ostiralean, 17:30ean,

Erremonteko binakako txapeldun

Joxeba Auzmendi, bigarren herritar txapelduna

Ligaska eta kanporaketako partidurik galdu gabe, erre- monteko final nagusia ere erraz irabazi zuen Joxeba Auzmendik, Zeberio II.a la- gun zuela. Urtarrilaren 10ean, 40 eta 25 menderatu zituzten Ezkurra eta Olazar. Aurrene- ko aldia da lehen mailako txape- la irabazten duena. Aurrez, 1995ean, Ezkurarekin batera, etorkizuneko udaberrirako txapelketa irabazi zuen, Eli- zalde eta Etxaberen kontra. 2000. urtean, berriz, TVE tor- neoa, Altuna II. arekin, Ma- txin eta Iriarteren kontra. Jo-



Profesionalak 15. urtean lortu du txapel nagusia
Joxeba Auzmendik

xebaren aurretik, 1999an, Iña- xio Imaz izan zen lehen txape-

pela lortu zuen herritarra, Ez- kurra lagun zuela.

mutil alebinak, idiazabalda- ren kontra. Zapatuan, 9:30ean, mutil alebinak, bea- saindarren kontra. Saskiba- loia: zapatuan, 10:30ean hasi- ta, neska eta mutil alebinak beasaindarren kontra.

Mendi irteera: Larraitx Au- za-Gaztelu, urtarrilaren 16an, 8:30ean plazatik irtenda.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Errejonak:** Intxurre 0-3 Segura. **Jubenilak:** Intxurre 3-0 Segura. **Kadeteak:** Aiz- korri 2-3 Dunboa.

Asteburuan etxean: Ka- deteak: Aizkorri-Behobia, zapatuan, 11:00etan.

Labur-labur

● **Ximon eta Sebastian Ga- raialde** anaiek irabazi zuten abenduaren 13an Zopajale el- karteko mus txapelketa.

● **Umetzekoen kantu eskea.** Abenduaren 24an eskera ate- ra ziren guraso eta umetxoek 155 euro bildu zituzten. Diru hori, umetxean, materialeta- rako erabiliko da.

● **Atsedean. Karta txapelke- tak:** Brixka, puntu, tute eta mus txapelketarako izen ematea zabalik dago, eta

otsailean zehar jokatu dira. **Loteria:** Abenduaren 22an nahiz urtarrilaren 6an jokatu- takoa tokatuta, urtarrilaren 17rako 62209 zenbakia hartu dela adierazten dute.

● **Herriko ehiz txapelketa.** Txoritegi elkarteak antolatu- ta, urtarrilaren 18an, 9:00eta- tik 13:00etara, partzoneriko lurretan.

● **Hitzaldia.** Goimenen bi- dez argitaratu zen 'Zuhaitz eta Zuhaiskak baserri ere-

muan' liburuaren inguruko solasaldia. Urtarrilaren 22an, 19:00etan, kultur etxean.

● **III. San Ixidro pala txape- lketa.** 17 bikotek eman du- te izena. Txapelketa urtarrila- ren 25ean hasiko da eta igan- de goizetan jokatu dira parti- duak Baratze pilotalekuan. Hasieran ligaskak, ondoren kanporaketak eta San Ixidro egunean finala.

Joseba Telleria



Botikari berria

Amelia Escala, legazpiarra, 37 urte botikan lanean eraman on- doren, 66 urterekin jubilatu egin da. Ameliak, Ana Berbel be- asaindarrari saldu dio bere lizentzia. Urte berriarekin batera hasi da lanean eta aurrerantzean, bera izango da herriko boti- karia. Ana, euskalduna da. Goizez, astelehenetik zapatuta 9etatik 1era egongo da zabalik eta arratsalde- z, astelehenetik ostiralera 4,30etatik 8etara.

Biztanle kopurua behera

Kontuak ateratzeko garaia izan ohi da urte batetik besterako aldaketakoa, zaharrak zer eman duen eta berriari zer itxaropenekin ekiten zaion balantzea egitekoa. 2004ko lehen ale honetara iazko herriko biztanleriaren mugimenduak ekarriko ditugu, udaleko eroldako iturriak erabiliz.

Hasteko, nabarmen egin du behera urtebetean biztanle kopuruak, azkenaldiko goranzko joera aldatuz. Aurten go urtarrilaren batean 423 gabiriari zenbatzen zituen eroldak, iaz data berean baino 19 gutxiago. Kanpora joandakoen artean aurkitzen da, beste behin, horren arrazoiak; Beko Errotako aterpetxean bizi ziren 13 atzerritarri ofiziozko baja eman baitzaiei, euren herrialdeetara itzuli ondorenean.

Gainontzean, alta eta baja errealei dagokienez ez da diferentzia handirik gertatu, baina kopurua aldena baino hazixeagoa dela nabaria bada ere. Hiru jaiotza besterik ez zituen eman 2003ak, hildako seiren parean. Gabiriara bizi-terza etorritakoak 9 izan zi-

ren, baja emandakoak, aldiz, 12. Beti ere udaleko datuak aintzat hartuta, hona jaiotako eta hildakoen izenak:

Jaiotzak: Xuban Elgarresta Azpiazu (urtarrilak 31), Saioa Etxezarreta Larrañaga (ekainak 27), Edorta Atin Maritxalar (ekainak 28).

Heriotzak: M^a Carmen Moreno Dealler (urtarrilak 24), Eulogia Mendizabal Jaurregi (otsailak 21), Josefa Ariztimuño Azpeitia (apirilak 21), Sabina Zelaia Mandiola (ekainak 21), Manuela Deba Mujika (irailak 21), Francisco Goia Telleria (azaroak 27).

Herriko edadetuena izatearen ohorea Zantagoiti Bekoa baserriko Antonio Olariaga Alkixak edukitzen darrai. Aurten 98 urte beteko ditu. Ondoren Agerretxemendiko Eugenio Muruak beteko ditu urte gehien, 93. Adin tarte esanguratsuenen desglosea eginda, honelaxe banatzen dira herritarren mailak:

- 0-18 urte: 79
- 18-65 urte: 247
- 65etik gora: 97



Gabonetako giroa

Goiko argazkian, Gabon egun osoan etxetik etxe eskean irten zuten hainbat taldek. Horietako bat Aztiriko kuadrila. (Argazkia: Joxe Maiz). Behekoan, Urte Zahar arratsaldean ikuskizuna eman zuten gazteak, bizkarrean pentsu zakua hartuta nor baino nor. Urteari bukaera sasoian emateko. (Argazkia: Ander Kerejeta).

Labur-labur

● **Goierrri Telebista** dagoneko ikus daiteke herrian, urtarrilaren 8az geroztik, UHFⁿ.

● **Zabor edukinontzi berriak** ipini ditu Sasietak, bai erreziklapenerako gaienak, bai zabor arruntarenak.

● **Eguberrietako pinuak** urtarrilaren 9an bildu ziren, konposta eginez erreziklatzeko.

● **Herriko Ostatuako zerbitzua** utzi zuten Martin Irazus-tabarrenak eta Maribi Dorronsorok urtarrilaren 7an. Zeraingo ostatuaren martxa hartu dute.

KZguneko ordutegi berria

Urtarrilean goizetan eskainiko du internet zerbitzua KZgunek, 9etatik 13etara astelehenetik ostegunera, Lorea Eziolazaren tutoretzapean. Batetik ikastaroak burutu daitezke, 10 edo 20 ordukoak, eta bestetik interneten nabigatzeko aukera daramazkuten honek.

Urtarrilean emango diren klaseetan, batetik 20 orduko kurtsua urtarrilaren 5ean hasi zen, 21a arte, goizeko 10etatik 12etara. Urtarrilaren 22tik 29ra hamarna orduko bi ikastaro emango dira, 9etatik 11etara lehen txanda eta 11etatik 13etara bigarrena. Informazio gehiago eskuratzeko dei KZgunera (943 16 02 38).

Zuhaitz landaketarako laguntzak

Baserri eremuko zuhaitzen landaketan eta hazketan interesa dutenentzat dirulaguntzak atera ditu Goimen elkarteak, arbo-

lek nekazaritzan zein gizarteak dakartzaten onuren jakitun eginda. 'Zuhaitz eta zuhaiskak baserri eremuan' liburuaren aurkezpen hitzaldia eskaini zuten atzo iluntzean, urtarrilaren 15ean, Landarlan-eko kideek Abarkalekuan. Laguntzen eskara orriak ere bertan banatu zituzten.

Taldeakako bola txapelketa

Urtarrilaren 4an jokatu zen Gipuzkoako taldeakako txapelketaren bi tiraldietatik lehenengoa Gabiriako udal bolatokia. Donostiako Herreran izan zen bigarrena. Denera hamaika klubetako taldeek parte hartu zuten, bakoitza seina bolariz osatuta. Gabiriako jardunaldiko sailkapena:

1. Liztormendi (Zerain): 276 puntu
2. La Salle A (Legazpi): 273
3. La Salle B (Legazpi): 267
10. Osinalde (Gabiria): 249

Aimra Maiz



Postal eta idazlan lehiaketan sarituak

Euskal Herriko Gabonekin lotura zuten makina bat postal egin eta aurkeztu zituzten herriko ikastetxeetako gazte-txoek. Idazlanak ere hogei-ta hamarretik gora. Parte hartze handia, beraz, berriro ere Goiztiri AEK-k antolatutako Eguberrietako postal eta idazlan lehiaketak.

Jakintza Ikastola, Urdaneta Herri Eskola eta Oianguren Institutuko ikasleak izan dira protagonista. DLHko hirugarren zikloko eta DBH1eko ikasleek postalak aurkeztu dituzte eta DBH2koek, aldiz, gai libreko idazlanak.

Aurkeztutako lanen artean jarraian saria eskuratu dutenak: postaletan Jakintza Ikas-

tolakoen artean lehen saria Lidia Arañak, bigarrena Maialen Aldasorok eta hirugarrena Laura Merinok. Urdaneta-Oiangurenkoen artean, berriz, lehen saria Iñaki Sanchezek, bigarrena Eneko Tenientek eta hirugarrena Jon Rodriguezek.

Idazlanei dagokienez lehen saria Oiangurenko Ane Soralezarentzat izan da 'Aralartik Nafarrora' lanagatik, bigarrena Jakintzako Irati Martinezentzat 'Non daude kandelak?' lanagatik eta hirugarrena Oiangurenko Joanes Arratibelentzat 'Gerratea' lanagatik.

Lan guztiak ikusgai izan dira Gabonetako oporraldian

'Idatziak' gida-liburua

Euskarazko idatzi ezberdinak jasotzen dituen liburua banatu berri du Udalak etxez etxe, herritarrei eguneroko beren jardunean idatziak euskaraz egiten laguntzeko eta idaztean sortzen zaizkien zalantzak argitzeko. Bertan zorion agurrak nola egin, doluminak emateko irizpideak, eskolako idatziak, auzokideen artekoak, gutunak osatzeko esapideak, data nola idatzi, hasiera eta amaiera agurrak, gonbidapenak nola idatzi eta abar azaltzen da. Momentuz Udalarekin euskara hutsezko harremanak nahi zituzten familiei helarazi zaie liburua, baina inork eskuratu nahiko balu Udaleko euskara zerbitzura jo besterik ez du.

Ega taldea

EGA titulua atera ezinean bazabiltza edota lehen aldiz aurkezteko asmoa baduzu, orain duzu aukera. Goiztiri AEK euskaltegian datorren astetik aurrera martxan jarriko da EGA titulua ateratzeko prestatzeko taldea. Klaseak arratsaldetan izango dira astelehenetik ostiralera eta azterketak maiatzaren 15ean aitari proba, 29an idatzizkoa eta ekainaren 26an ahozkoa. Kontuan izan hauek deialdi itxirako datak direla, euskaltegi homologatuetan ikasi duten ikasleei zuzendutakoa. Izena emateko edota informazio gehiagorako deitu 943-889174 zenbakira edota azaldu Goiztiri AEK-k Dorrea Etxean duen lokalera.

Lanak amaituta

Bi urte pasatxo behar izan dute langileek Kale Nagusiko zorua berraldatzeko. Urtea amaitzearekin batera amaitutzat eman da, beraz, hiri-guneko zorua berritzatzeko orain urte batzuk abian jarritako egitasmoa. Honela, beraz, asteazkeneko periak ere betiko itxura hartu du, ohiko postuak Garagartzatik Enparantza Nagusira pasatuaz.

Domingo Unanue etxearen berritzatze lanak ere aurrera dirau eta epe laburrera bisitatzeko moduan izango da.

Nafarroa Etorbidea eta Bizkaia Kalea ere laster elkartuko dira. Oria ibaia zeharkatzeko balioko duen oinezkoentzako zubiaren oinarria ipinia dago jada eta laster gurutzatzeko moduan izango da. Zubi honek Bustuntza auzoa Txakurtxulo zenarekin erkatzeko balioko du.

Barrena Kultur Etxean eta baita Ordiziako Udaleko webgunean ere. Argazkian sari-

tuak Goiztiri AEK-ko ordezkariarekin saria banatu ondoren.

Antzerki Garaia

Beasaingo Udalarekin batera martxan jarri da aurtengoan ere 'Antzerki garaia. Jarraian Ordizian Herri Antzokian taularatu-ko diren obrak: urtarilaren 9an Vaivén taldeak "Victor Bevh: blanco, europeo, varón, católico y heterosexual" antzeztu zuen gaztelaniaz, otsailaren 13an Gorringo taldearen "kutxidazu bidea Ixabel" lana ikusi ahal izango da euskaraz, martxoaren 12an Txalo taldearen "Pakita" lana gaztelaniaz eta azkenik, apirilaren 2an t(ARTE)an-ek ekoiztutako "sonata segundu batean... eta piku" euskaraz. Informazio zehatza 3. orrian duzue.

Azoka berezian sarituak

Abenduaren 24an egin zen urteko azken peri berezian Euskal Herriko erretil sagarraren lehiaketan Anttoni Murgiondo gabiriarrarentzat izan zen lehen saria, bigarrena Hernaniko Manu Iradirentzat eta hirugarrena Gabiriko M^a Isabel Zumalakarregirentzat. Fruitu lehorren sailean Jesus Artola anoetarrak eskuratu zuen saria eta fruitu lehiaketan lehen saria Manu Iradirentzat (Hernani) izan zen, bigarrena Anttoni Murgiondo-rentzat (Gabiria) eta hirugarrena Maria Etxezarretarentzat (Gabiria).

Aitor Calvillo



Eski irteera Baqueira Beretera

Otsailaren 14 eta 15erako eski irteera antolatu du Zeraingo Oa kultur elkarteak Baqueira Beret-era. Bidaia irteera hilaren 14an goizaldeko 3etan izango da Zeraingo plazan. Autobusez izango da bidaia eta bi egun izango dira eskiatzeko. Prezioa 150 eurokoa izango da helduentzat eta 134 eurokoa haurrentzat (11 urtez behekoak). Prezioan sarturik daude: bidaia; ostaltua (Vielhako Hipic Sascumes hotelean), afaria, gaua, gosaria; forfait-ak (bi egun) eta aseguru bidai osorako. Materialaren alokairua aparte izango da, Carving-erakoa 20 euro eta Snow-erakoa 24 euro. Izena Mandioa dendan eman beharko da, ahalik eta azkarren, plazak mugatuak baitira.

Tute txapelketa Liztormendi elkartearen

Urtarrilaren 17an, larunbata, Tute txapelketa jokatu da Liztormendi elkartearen. Arratsaldeko 4,30etan hasiko da txapelketa eta izena emateko ordua 4ak eta 4,30ak bitartean izango da. Irabazleentzat txapela bana izango dira eta semifinalistek, azken lau bikoteek, afaria izango dute. Inskripzioa 15 eurokoa izango da bikoteek. Liztormendi elkartearen halaber, urtarrilaren 31n Mus txapelketa jokatu da.

Otatza sagardotegiaren denboraldi hasiera

Urtarrilaren 16an, ostirala, irekiko dute Otatza sagardotegia denboraldiari hasiera

Usadio zaharreko erromeriak berrezarri nahian

Trikitilari elkartearen ekimenez eta Zeraingo Udalaren laguntzaz, sartu berri garen 2004 urte honetarako usadio zaharreko hainbat erromeri antolatzen asmoa dago. Hilero erromeria bat egiteko asmoa dago, igande iluntzeko 6etatik 8ak bitartean edo. Lehenengoa datorren otsailaren 1ean izango da eta xehetasunak zehaztu gabe badaude ere, festa polita egitea espero da.

emateko. Txotxa iluntzeko 8,30etan irekiko dute eta festa giroa izango da trikitixa eta guzti. Aurten sagar asko ez bada izan ere, sagardo polita omen dute Otatza aldean.

Gabon eskea

Gabon egunez, eta urtero egin ohi den eran herritarrez osatutako bi talde etxeko ibili ziren kantuan eta eskean. Batetik eskolako umeak eta gurusoak ibili ziren goiz guztian zehar eta 700 euro inguru bildu zituzten. Bestetik kultur etxeko eta katekesiko taldea ibili zen egun guztian zehar

eta 1330 euro bildu zituzten. Erdia katekesirako izango da eta beste erdia, kultur etxeari zegokiona, Berria egunkariari emango zaio.

Berriaren aldeko diru bilketa

Berria euskal egunkari sortu berriari laguntzeko diru bilketa ezberdinak egin dira Zerainen. Akzioak saltzen jarri ziren, arropa saldu zen, afari bat egin zen Berriaren alde, gabon eskean jendea irten zen... Denera 3720 euro bildu dira. Eskerrik asko denei.

Ion Muñoa



Goierritarra

Goierri aldizkaria jasotzeko ez da derrigorrezkoa 12 euroak ordaintzea. Goierri kanpo jasotzeko bai.

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Tfnoa.: Adina: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia** eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro kobratuko dizkizugu kontu korrontetik Ipar Euskal Herrian edo Europan jasotzeko 24 euro ordaindu behar dira eta Europaz kanpo jasotzeko 36 euro.



XIX. Eguberri jaialdia

Abenduaren 28an, arratsaldeko 7,30etan San Martin parrokian Orkatx Abesbatza, Orkatx Txiki Abesbatza eta Igantziko Abesbatzak XIX. Eguberri Jaialdi arrakastatsua eskaini zuten. Bertara jende ugari hurbildu zen. Jaialdi amaieran, Orkatzeko lehenakariak eta Nafarroako Igantzi Abesbatzako lehendakariak oroigarriak elkartrukatu zituzten.



Carrefourreko Olentzero lehiaketan irabazle

Aitxuri Herri Eskolako ikasleek, hirugarren urtez irabazi dute Carrefourrek antolatzen

duen Olentzero lehiaketa, 9 - 12 urte bitarteko mailan. Olentzeroa ostiraletako tailetan egin dute, eta horretarako igeltsoa, lastoa, egurra ... eta hainbat material erabili dute. Apaintzeko lumak, intxaurrak, bertsoak inguratu dituzte.

Beti bezala, gogo eta ilusio haundiarekin aritu dira eta Olentzeroak benetako erregalua ekarri die. Irabazitako sariarekin kurtso bukaera ikuskizun bereziren bat antolatu dugu.

'Zuhaitz eta zuhaiskak baserria eremuan' liburuaren aurkezpena

Urtarrilaren 27an, asteartea, iluntzeko 7etan Kultur Etxean, Goimen Elkartek argitaratu zuen 'Zuhaitz eta zuhaiskak baserria eremuan' liburuaren aurkezpena eta bertan jasotzen diren landareen erabilaren buruz hitz egingo da, Goimen elkarteak, dirulaguntzak jarri baititu hainbat landaketa bultzatzeko.

Txalaparta ikastaroa

Otsailean eta martxoan Txalaparta ikastaroa antolatu du Tobera Musika Eskolak. 16 urtetik gorakoentzat izango



M^a Luisa Gorrotxategiren margo-lanak ikusgai Oñatin

M^a Luisa Gorrotxategiren margo-lanak egongo dira ikusgai Oñatiko Kultur etxeko erakusketa aretoan urtarrilaren 15etik 25era, Marilu Unzurrunzaga oñatiarraren lanekin batera. M^a Luisak pintura figuratiboa egiten du nagusiki, eta erakusketa honetan oleoz egindako etxe barruko txokoak, bodegoiak, lorontziak eta Aizkorri inguruko paisaiak izango dira ikusgai. Ordutegia: Asteunetan 18:30etatik 20:30etara, eta larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etatik 20:30etara.



San Nikolas

Aitxuri Herri Eskolako neska mutiko eta irakasleak abenduak 6an, San Nikolas eguna, abestera atera ziren. Egun horretan bildutako dirua, aurretik Tutoritzan erabakita zuten bezala Irak-era bidali da "Médicos sin fronteras" erakundearen bitartez. 518 euro jaso ziren eta argazkian ikusten den bezala Kuxan sartu dute Aritz Olaziregi eta Iñigo Atxa obispoek.

da eta ikastaro hau egin ahal izateko ez dago musika eza-gupenik eduki beharrik. Interesatuok harremanetan jarri Tobera Musika Eskolan.

Igandetako bideo emanaldiak

Urtarrilak 25, arratsaldeko 5etan Kultur Etxean Guraso Elkartek antolaturik 'Beethoven 3 de excursión con la familia' filma izango dugu ikusgai.

Edurne Albizu

Talo festa

Urtero legez, aurten ere talo festa ospatuko da. Santa Ageda inguruan egin ohi da. Aurten, otsailaren 8an izango da, herriko Udalak eta Ugaro Herri Ikastetxeko Guraso Elkar-tearen eskutik. Taloak egiten berriz, 8 bat laguntzaile arituko dira. Festa honetan bildutako dirua Iranera bidaltzea erabaki da.

Gabonetako ekintzak

Gabonetan hainbat ekintza ospatu ziren, gazi-gozaok gertatu zirelarik, guztiek ez baitzuten arrakasta bera izan. "Biblia osoa... gutxi gora be-

hera" antzezlanaren esaterako oso arrakastatsua izan zen, 160 lagunetik gora bildu baitziren herri zineman. Hurrei zuzenduriko Pello Añorgaren "ipuin kontalaria" saioan ere hainbat haur eta guraso bildu ziren. "Bertso Musikatuak" emanaldian berriz, ez zen hainbeste jende izan.

Gaztaina festa 2003

Joan den urtearen amaiera aldera ospatutako gaztaina festan 1047'25 euro bildu ziren guztira.

Zelai Amenabarro

San Silbestreko emaitzak

Urte Zahar egunean, San Silbestre Krossa korritu zuten herriko hainbat korrikalarik. Hona hemen irabazle suertatu zirenen izenak:

- 5 urtera arte:

Mutilak: 1. Joel Azkonobieta, 2. Ion Arrizabalaga, 3. Aitor Zunzunegi. **Neskak:** 1. Uxue Amondarain.

- 6-7-8 urte:

Mutilak: 1. Mikel Felipe, 2. Oier Urtaza, 3. Ander Madinabeitia. **Neskak:** 1. Izar Mateo, 2. Sara Salegi.

- 9-10-11 urte:

Mutilak: 1. Oier Jauregi, 2. Ikian Azkonobieta, 3. Ion Blanco. **Neskak:** 1. Maialen Felipe, 2. Sarai Mateo, 3. Maddi Jauregi.

- 12-13-14 urte:

Mutilak: 1. Ekhi Zugasti, 2. Kepa Jauregi, 3. Iñaki Esnal.

- 15 urtetik gorakoak:

Mutilak: 1. Santi Ruiz, 2. Jose Miguel Felipe, 3. Xabier Mendizabal. **Neskak:** 1. Rosa Torinos, 2. Agurne Sanchez, 3. Ana Rosa Agirre.

Ur hornidura Arriarandik

2003ko abenduaren 11tik aurrera Mutiloarako ur hornidura, Arriarango ur saretik ematen hasi da Ur Kontorzioa, Ormaiztegin egin den ponpaleku baten bitartez. Ormaiztegitik Gabiriko ur biltegira bideratuko da eta Gabiriko ur biltegitik Mutiloakora.

Ur Zerbitzuetako bilera

2004 urtea hastearekin batera, herriko uraren gestioa, kontadore neurketa, konponketak, Ur Zerbitzuaren esku geratuko dira. Gaiaren inguru-

ruan azalpenak emateko herri mailako bilera egingo da urtarrilaren 24an, goizeko 11etan Kultur etxean. Bileran Ur Zerbitzuetako arduradunak izango dira.

Santa Ageda egunerako prestaketak

Urtarrilaren 23an Santa Ageda eguneko entsaioak eta eguna bera prestatzeko, herri mailako bilera antolatu du Festa Batzordeak Udaletxeko aretoan, iluntzeko 9,30etan.

Tere Arruabarrenaren erakusketa

Dagoeneko ohituta gaude Tere Arruabarrena herriko margolariaren lanek izaten duten arrakastara. Azaroaren 2tik abenduaren 24ra bitartean, Anjel Uranga margolariaren Zarauzko galerian egin zuen erakustaldia eta izugarri arrakastatsua suertatu zen.

Bilera honetan bertan San Pedro jaiak ere mintzagai izango dira oraindik urruti samar dauden arren prestaketa lanak aurretik hasten dira-eta, batez ere taldeak eta musika ekitaldiak antolatzen hasteko.

Gabonetako jaiak

Honezkero ahaztu samartuta ditugun arren, Gabon egunak


aipatu. Abenduaren 24an, herriko bi talde ibili zirela etxeko kantari aspaldiko ohiturari jarraituz.

Heriotza

Urtarrilaren 3an hil zen Sute-gi baserriko Joxepa Telleria 94 urterekin.

Iñaki Ugalde

Mikel Galarragak odolemaileen zilarrezko domina jaso du



Mikel Galarraga eta odolemaileen elkarteko lehendakaria den Jon Iñaki Rezusta

Urtero urte amaierara iristen ari garen eran odolemaileen elkarteak beraien elkartekien artean dominak banatzen ditu, eskualde mailako ekitaldi garrantzitsua izaten delarik. Odolemaileek urteetan izaten duten eskuzabaltasuna eskertzeko asmoz merezimendu osoz banatzen dituzten dominak direlarik.

Aitzitik gure herriko odolemaileen elkarteko kide dugun Mikel Galarragak zilarrezko domina jaso berria du. Berarekin izan gara solasaldi labur batean, odolemaile bezala burutu duena gertutik ezagutzeko eta aldi berean gure zorionik beroena berari adierazteko asmoz.

Mikel Galarragak zilarrezko domina aurrean

25 aldiz odola eman ondoren jaso ahal izaten dute odolemaileek zilarrezko domina, 50 aldiz eman ondoren berriz urrezkoa ezartzen zaie.

Oraingoan Mikel Galarragak lortu du aipatu marka gaintitzea eta ondorioz berari eskaini zaio zilarrezko domina. Beraz lehenik gure zorionik beroena urte guzti hauetan hutsaren truke eskaini izan duen laguntzagatik eta aurrerantzean ere bide beretik jarrai dezala opa diogu.

Mikeli noiztik den odolemaile elkarteko partaide gal-

detzerako orduan zera erantzun digu: "1977urte ezkerroztik naiz odolemailea, orduan 19 urte nituen eta Bergaran ari nintzen lanean. Bertako batek galdetu zidan zer odol moeta nuen, nik orduan oraindak ez nekiela esan nion eta berak animatu ninduen odola ematen hastera eta horrela hasi nintzen".

Mikelek gaur arte guztira 27 aldiz eman du odola. Urtean bi odol ateraketetan parte hartzen du.

Odola ematerako orduan bestelako arazorik izaten al duen galdetzerakoan ezetz adierazi zigun. Ez duela inoiz aparteko arazorik izan.

Odolemaile egin zenean eta ondorengo urteetan ere ez zuen ezagutzen odola emateagatik elkarteak odolemaileei domina ematen zienik, beraz "niregan ez zuen interes berezirik sortu dominarenak, orain urte gutxira arte ez bainekien ere dominarik ematen zutenik", adierazi digu Mikelek.

2004 urterako desiorik hoberenarekin

Eguberrietako oporraldiaren ondoren berriz ere elkarrekin aurkitzen gara. Eguberri jai zoriontsuak igaroko zenituztelakoan, 2004. urte hasera honetan jaso ezazue urte berrirako desiorik hoberena pakea, osasuna eta ongizatea opa dizkizuegu herritar guztiei. Urte berrian ere herriko berriak zuenganatzen saiatuko gara. Jakin ezazue edozein beharren aurrean zuen zerbitzura aurkitzen garela. Zorionak eta urte berri on!

Aitziber Murua

Urtean hiru odol ateraketeta

Egun gure herriko odolemaileen elkarteak 200 kideetik gora ditu. Ormaiztegi, Gabiri eta Ezkio-Itsasoko kideez osatua dago. 2000. urte ezkerroztik Jon I. Rezusta da elkarteko lehendakaria, ordura arte Migel Angel Imazek bete zuen lekua hartuz.

2003. urtera arte urtean bi odol ateraketa egiten baziren ere, 2002. urte amaieran herriko odolemaileen elkartetik jakinarazi ziguten bezala, erronka berri baten aurrean aurkitzen ziren. Hau da 2003. urteari begira ateraketa bat gehiago burutzea, urtean bi ateraketa izatetik hirurako pausoa ematea.

Oraingoan ere asmoak bete dituztela esan behar eta 2003. urtean jadanik hiru ateraketak burutu dituztela. Urteko lehenengo odol ateraketa otsailaren 26an burutu zen, bigarrena ekainaren 24an eta hirugarrena urriaren 29an. Azken ateraketa honetan 52

odolemaileek parte hartu zuten, 6 lehenengo aldiz odola eman zutenak edo odolemaile berriak izan zirelarik.

Urteko balantzea egiterako orduan elkarteko delegatuak baikor agertzen dira, odolemaileen kopurua iazko urtetik aurtengora 121 odolemaileetik 158ra igo baita.

Baina odolemaileen elkarteak bere zeregina burutzeko hainbat erakunde eta pertsonen laguntza behar izaten du. Odolateraketetan laguntza ematen dien Udala, Euskadiko Kutxa, Medikuko Kontsultorioa, Otordu, Lazti garraioak, Elosegi Ardoteia, Iñaki Autoserbitzua, Murua eta Deba harategiei eskerrikeri beroenak eman nahi dizkie.

Beraz lerro hauetatik elkarteko delegatuen izenean eskerrikeri beroenak eman nahi dizkie herriko odolemaileen elkarteak osatzen duten guztiei bai herritarrei eta baita Gabiri eta Ezkio-Itsasotik hurbiltzen direnei ere. Hasi berria dugun urteari begira odolemaileen kopuruak gora egingo duenaren itxaropenarekin aurkitzen dira, eta lerro hauetatik lehen aldiz odola ematera hurbildu nahi duzuen guztiei dei zabala luzatzen dizue, edozein zailantza izanez gero inolako arazorik gabe hurrengo odol ateraketara hurbil zaitezten.



Ataun-Avia maila onean

Areto Futboleko Autonomika kategorian dabilen Ataun Avia taldea, denboraldi bikaina egiten ari da. Maila hau 16 taldez osatuta dago eta momentu honetan 13 partida jokatu dituztenean sailkapeneko 3.postuan daude ataundarrak 20 punturekin. Emaitez garbi adierazten duten bezala, taldea erakustaldi aparta eskaintzen ari da. Igor Sukia eta Xabier Etxeberriaren aginduetara lanean dabilen talde gazteak oraina arte burututako lan onaren emaitza jasotzen dihardu.

Ataun Avia talde gaztea da, taldearen batzbesteko adina 20 urtekoa besterik ez da. Entrenatzaile lanetan Igor Sukia aritzen da, Sabih Etxeberria delagatu lanetan aritzen delarik. Taldea osatzen duten 11 jokalariek: Gorka Albisu, Sabih Agirre, Josu

Arrondo, Aitor Arruabarrena, Jon Dorronsoro, Sabih Gonzalez, Iker Aldasoro, Hegoi Imaz, Joseba Imaz, Aitzol Munduate eta Eusko Sukia dira.

Bestalde Ataun Bitor Jate-xtea nesken taldea sailkapeneko 5. postuan dago 11. jardunaldia burutu ostean. Maila honetan 10 talde aurkitzen dira. Mutilen taldean ez bezala, jokalarik falta sumatzen dute neskek; 7 jokalarik besterik ez dituzte. Pare bat berri gustura asko hartuko lituzkete. Areto futbola gustuko duen edozein neskarentzat deialdia luzatua dago.

Aitor Arruabarrena da nesken taldearen entrenatzailea eta Eider Goikoetxea delegatua. Jokalariak: Garazi Aierbe, Maider Arruabarrena, Bidadz Badiola, Garazi Etxebe-



rria, Beatriz Barriola, Maider Gandarias eta Maialen Sukia dira.

Biek ala biek ere, beren esker hona luzatu nahi diete laguntza ematen dien Kirol Elkarteari eta bereziki AVIA-ko Guillermo Galparsorori eta Bitor Jatetxeari.

Astebukaera honetan, multilek etxetik kanpo jokatu beharko dute, Portutxo taldearen aurka. Neskek ere beren neurketa kanpoan dute, Tolosa aldera bidaiatu beharko dute Laskorainen aurka jokatu ahal izateko.

Doltza Barandiaran

Konposta

Ingurumenak duen garrantzia ikusita, Joxemiel Barandiaran Herri Ikastetxe-ko 3. eta 4.mailako ikasleek, eskulane-tako negutegi tailer-rean, konposta egitea erabaki dute. Konposta hondaki-



nez osatutako eta lurrarekin nahasten den ongarri bat da. barazki hostoz, fruituen azalez, belarrez, zuhaitzen hostoz.... osatuta dago. Hondakin guzti hauek ontzi handi batetara botatzen dira. Ontziaren azpiko zuloetatik, zomorroak, zizareak, mikrobiak sartzen dira; jan eta kaka bertan egiten dute. Kaka horri, konposta deitzen zaio. Zazpi hilabete pasatu behar dira hori egiteko.

Euskal Herriko esku soinu txapelketa

Gabonetako oporrak hartu aurretik, jakin genuen, abenduaren 6an Arrasaten Euskal Herriko esku soinu txapelketan herriko musika eskolako ikasle diren Laida Olano eta Ane Dorronsorok parte hartu zutela. Laida Urrezko kategorian sailkatu zen eta Ane berriz, brontzezkoan. Abenduaren 20an herriko koral- eta musika eskolako ikasleen kontzertua izan zen eta bertan, txalapartari eta albokariaren erakustaldia eskaini zuten. Musika

eskolako Nerea Barandiaran arduradunak aditzera eman digunez, urtariletik aurrera, bi instrumentu hauek erakusten hasiak dira. Interesa duen orok musika eskolara zuzendu beharko du edo bestela bertako telefono zenbakira deitu: 626894441, Nerea Barandiaranetaz galdetuaz.

Hirugarren adina hirugarren mundua

Abenduaren 18an jakitera eman zigitenez, hirugarren adina hirugarren mundurako elkarteak urtero antolatzen duen Literatur Lehiaketan Ataungo Joxemiel Barandiaran Herri Ikastetxe-ko ikasleek C kategorian hiru sari lortu zituzten, "Zer egin dezaket nik mundu zuzenago baten alde" gaiarekin. 1.go saria Mikel Etxeberriak lortu zuen, 2.na Jaione Goikoetxeak eta 3.na Saioa Arzarentzat izan zen.

EHNA

Abenduaren 14an Ataunen Euskal Herritar Naziotasun Aitor-menaren, EHNAren, tramitazio egun arrakastatsua izan zen, guztira 50 lagunek egin zuten. Dagoeneko 130 EHNA tramitatu dira Ataunen. Oraindik egin nahi duenak badu aukera. Horretarako Erroldaren agiria eskatu behar da udaletxean, 14 urtetik beherakoek familia liburuaren fotokopia eraman beharko dute, hiru argazki berri karnet neurrikoak eta koloretan, eta 15 euro dirutan. Hilaren lehenengo eta azkeneko larunbatetan goizeko 11etatik 1era Udaletxeko bigarren sorailura jo besterik ez duzue.



Mila esker, Maritxu

15 urte luzez aritu da Maritxu lanean Zaldibiako Beti Gazte Elkartean. Bera izan da, familiaren laguntzarekin, Elkarte honi bizia eta poza eman dio. Beti lanerako prest eta umore onez, beti herritarrokin hitz- aspertu atseginak egiteko pronto.

Beti Gazte Elkarteak bere esker ona azaltzeko, zilarrezko plaka bat oparitu dio Patxi Iraola bertsolariak idatzitako bertso eder honekin:

Maritxu zorionez
zu zinan agertu
borondate oneko
zeinek ez ulertu
mostradore edo mahai
zerbitzeko gertu
hainbat urtez zurekin
ez gara aspertu
Beti Gaztek bihotzez
nahi zaitu eskertu



Askatasunaren zozketa

Urtero moduan, Askatasunak mendiko ekipoa zozketatu du. Lorturiko dirua presoen aldeko ekimenetara bideratuko da. Aurtengoan Omar Galarraga zaldibiarrari egokitu zaio saria. Mila esker parte hartu duzuen guztiei!

'El ultimo Bravo' antzerkia Zaldibian

Urtarrilaren 24an Gareseko Txilindron antzerki taldea etorriko da herrira. Talde nafarrak 'El ultimo Bravo' lana eskainiko du antzokian gaueko 10etan.

Eduarne Sraluze



Zugaitz Ayuso Gipuzkoako txapeldun

Abenduaren 28an herrian jokatu zen ziklo kros lasterketan, Zugaitz Ayusok Gipuzkoako txapela janzteia lortu zuen, Haitz Ortizi irabazi ondoren.

Aitor Garmendiak agur

Itsasondoarrak, txirrindularitza utziko duela iragarri du.

Mila Garmendia irabazle

Arrasaten bizi den itsasondoarrak, Beasaingo Aterpe tabernak antolatzen duen pintura lehiaketa irabazi du, bigarren aldiz. Berari egindako elkarriketa 33. orrian duzue.

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik
larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteaz zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

ZERAIN

aulia



TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi

Urte
guztian
zehar
zabalik



☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

AMEB



ASTELEHEN
GAUETAN
ITXITA

Sagardotegia

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9 **LAZKAO**

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE SAGARDOTEGIA



Egunero
zabalik

Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzera!

☎ 943 18 01 19

ATAUN



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA



Arrigain, S.L.

Askatasunaren etorbidea, 1-1.A

DONOSTIA

Tel.: 943 450 666

SENPERE MERKATALGUNEA, 36. bulegoa **BEASAIN**

Tel.: 943 805 033 Faxa: 943 805 031 Poltsikokoa: 687 965 354



ORDIZIA: 137m, 3 logela, 2 egongela, sukaldea, 2 bainugela, berogailua, igo-gailua, kanpoaldera.



ORDIZIA: Pisu ederra, 70m, berritua, oso argitsua, hiri gasa, berogailua, trasteroa eta garaje konpartitua.



ORDIZIA: 2 logela, sukalde amerikarra, egongela, bainugela, eguzkitsua, bizitzen hasteko moduan, prezio ona.



ORDIZIA: 85 m-ko pisua, erabat berritua, bizitzen hasteko moduan, prezio ona.



ORDIZIA: Pisu, 87 m, ezin hobea, ondo kokatua, altzariz jantzia, eguzkitsua, igogailua. Merez du ikusteak.



ORDIZIA: Pisu erdigunean, eraiki berria, altzariz jantzia, igogailua, ezin hobea.



ORDIZIA: 77m-ko pisua, berritua, xarmanta, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua, traSteroa eta garajea aukeran.



BEASAIN: 150m, 30m-ko ganbara, berogailua, berritu beharrean. Marmolezko eskaileradun etxe dotorea.



BEASAIN: pisu polita, erdibuhardilla, 16m-ko egongela, bikoteentzat ezin hobea, altzariz jantzia, primerakoa.



ZEGAMA: 80 m-ko pisua, hormigoizko egitura, erdigunean, kanpoaldera, berritzeko, prezio ona.



ZALDIBIA: eraikuntza berriko azken adosatua, garaje eta txokoarekin.



IDIAZABAL: pisua alokatzen da, lan-gileentzat egokia.



ANTIGUO: hondartzatik gertu, 2 gela-ko pisua, oso argitsua. Aukera ederra.



GROS: Apartamentu ederra, oso argitsua, 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Kapritxo dekoratua.



DONOSTIA ERDIALDEA: Bizitzen hasteko moduan! 2 logela, 2 bainugela, egongela-jangela eta sukalde jantzia. Luxuzko berrikuntzak. 687965616



DONOSTIA ERDIALDEA: Donostia-ko erdialdean bizi, 50m-ko terrazaz eta 85m-ko etxeaz disfrutatzea miraria da? Aprobetxatu aukera. 687965616



ALTZA: 75m-ko etxebizitza, terraza, bista zabalak. Zurezko zorua, sukalde ederra. 687965616



TRINTXERPE: Etxebizitza handia, 4 logela, sukaldea, bainugela, sala 60m-ko terrazarekin. Zerbait berritua dago. Inbertsio ona. 687965616

**ESKAERA HANDIAGATIK
ETXEBIZITZAK BEHAR DITUGU
ERRENTAN EDO SALGAI**

TORREVIEJA: astero bidaia dohainik



**AUKERA!
TXALETAK
ALTZARIZ JANTZIAK**
Hilean 59.000 pta
354,60 euro



**ETXEBIZITZAK
HONDARTZA
ONDOAN**

6.800.000 pta-tik
40.868,82 eurotik

% 100 finantziatua
Eskritura eta BEZ-a barne
Seriotasun profesionala
Eraikitzailetik zuzenean

Joseba Auzmendi segurarrak Erremonte txapelketa irabazi du Zeberio II.arekin batera

Urtarrilaren 10ean, Joseba Auzmendi segurarrak Zeberio II.arekin bikote eginez erremonte txapelketa irabazi zuen Hernaniko Galarreta pilotalekuan. Finalean 40-25 gaingitu zituzten Ezkurra eta Olazar. Lazkaon bizi den 36 urteko erremontistak hau du bere lehenengo txapel nagusia.

Zer suposatu du txapelak zuretzat?

Urte asko daramatzat erremontean eta lehen mailako txapelketa bakarria jokatu dut orain arte. Duela hiru bat urte izan zen Zeberio II.arekin. Orduan finalurrekoetan galdu genuen. Bigarren mailakoa, udaberriko torneoa esaten zitzaiona, Ezkurrearekin irabazi nuen eta Nafarroan TVE saria Altuna II.arekin irabazi nuen. Baina hau izan da lehen txapel nagusia. Dena dela ez dut uste aldaketa handirik ekarriko didanik. Orain arte bezala tarteka estelarren bat jokatuko dut.

Nola joan da aurtengo txapelketa?

Hasieran 3 bikoteko 2 talde-tan aritu ginen. Gurean Ezkurra-Olazar eta Bitoria-Izagirre egokitu zitzaizkigun. Le-

hen partidua Ezkurra-Olazarren aurka 40-28 irabazi genuen. Ondoren Izagirrek min hartu zuen eta ez genuen partidu hori jokatu. Finalurrekoa Agirresarobe-Lizaso-ren aurka egokitu zitzaigun eta lehen partidua 40-35 irabazi genuen. Bigarrenengoan 36 tanto egitera behartuak geunden eta 30era arte oso partidu estua izan zen, eta azkenean, 40-33 irabazi genuen. Finalean bai Zeberio eta bai nik oso ondo jokatu genuen. Ahal zela Ezkurrari pilota kentzen saiatu ginen eta ondo atera zitzaigun.

Txapelketa honetan punta-puntako pilotariekin nahasian jokatu duzue.

Horrela izaten da urtero. Ezkurra tartean dagoenean ezin zaio edozein bikotekide jarri. Atzean pixka bat eutsiko dion pilotaria jartzen badiote eta bera jokoan badago ez dago kontra egiterik. Orduan, beti jartzen dute bigarren mailako pilotariren bat.

Pilotari bezala zeintzuk dira zure ezaugarriak?

Atzelaria naiz eta ezaugarri garrantzitsuena segurtasuna dut. Oso pilota gutxi galtzen



ditut, golpe handirik ez dut baina ondo sakatzen dut. Lehenengo mailan nabarmen-tzeko golpe pixka bat falta zait.

36 urterekin pilotari beteranoen artean izango zara.

Adinez bai, baina sasoiz ondo aurkitzen naiz. Azpitik ez dirudi aparteko bultzadarik dagoenik, baina, enpresak beti ere gazteari emango dio bultzada. Hori beti gertatu da.

Ikusleak pilotalekura joatea, hori da arazoa. Eskuak eramaten du protagonismo guztia eta erramintako modalitateak baztertuta daude.

Uharteko pilotalekua ere itxi zuten, berriro ireki dute...

Galarretara dextente jende jo-


aten da baina Uhartera gutxi. Etorkizuna ez da oso itxaropentsua. Egunkarietan eta komunikabideetan bultzada handiagoa eman beharko litzaioke. Teletibetan ez da hain erraza, pilotaren abiaduraren-gatik ez baita esku pilota bezain ondo ikusten, baina egunkari eta irratietan askoz ere leku gehiago beharko luke.

Izenez profesionalak zarete baina pilotatik bakarrik bizi al zarete?

Badaude zenbait erremontetik bakarrik bizi direnak, baina soldata ateratzeko adina irabazten da. Pilota utzitakoan beste zer-bait aurkitu beharko dute. Lanarekin uztartuz gero askoz ere hobe. Nik CAF-en lan egiten dut. Arratsaldeak libre ditudanez badut entrenatu eta partiduak jokatzeko aukera.

Entrenatzeko nola moldatzen zara?

Pilotalekuan oso gutxitan entrenatzen dut. Astean 2 edo 3 partidu jokatzen ditut eta hori nahikoa da. Hortik aurrera prestakuntza fisikoa egin beharra izaten dut. Gutxi jokatzen dugun garaian, asteazketan 2 edo 3 ordutan izaten dugu pilotalekuan aritzeko aukera.



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

'Pilota Beasainen' liburua idatzi du Igor Bueno beasaindarrak

Igor Bueno Artola beasaindarrak, 'Beasaingo paperak' bildumaren barruan Beasaingo pilotaren historia argitaratu du. Han eta hemen egindako ikerketa lanaren emaitza da. 1757. urtean hasi eta gaur egunera arteko datuak eta istorioak, argazkiz lagundurik, irakur daitezke.

Duela lau urte hasi zen Beasaingo pilotari buruzko informazioa biltzen. Harra non piztuko, eta Nizan, Frantzian. Erasmus bekari esker Ives ikasketak egitera Nizara joan zen, eta antigoaleko postaletan Euskal Herriko pilotari buruzko postalak ikusi eta jokamolde ezezagunak ikusita. 2000. urteko urtarrilean Beasaina itzuli eta liburutegian, 'Rebotea Billabonan' liburuan, Beasainen jokaturako partidu baten aipamena ikusi zuen. "Gaur egungo Beasainen ez nuen posible ikusten errebotean jokatzeko lekuri egon zitekeenik. Jakinmin handi sortu eta udaletxean pilotaren inguruko materiala aurkitzen hasi nintzen", esan digu Igor Buenok.

1757ko dokumentua

Beasaingo pilotari buruzko lehen aipamena, 1757 urtekoa da Buenoren liburuan. Luzean pilota jokamoldea gaur egun ezezaguna bazen ere, garai hartan Euskal Herri osoan jokatzen zen. Partidu horietako baten berri jaso du beasaindarrak liburuan. "Luzean Euskal Herri osoan jokatzen zen eta hitzartutako partidu garrantzitsuetan, herriak herrien aurka jokatzen



Erdian irabazleak, Florentzio Argiñano eta Zelestino Lasa, honen alboan Jesus Ergüin eta Joxe Etxeberria segurarra, eta Argiñanoren alboan, aldiz, Seberino Etxeberria, Frantzisko Garaialde eta Joxe Mari Auzmendi segurrarrak.

zutenetan eta, batez ere, dirua tarteko zenetan, 'arrai-lariez' gain epaileen beharra izaten zen. Hala, 1757ko apirilaren 17ko igande arratsaldean, lau pilotari lazkaotarrek beste lau zaldibitarren aurkako desafio partidua jokatuz Laskaoko plazan. Partidu horretarako, bada, talde bakoitzak bina epaile aukeratu zituen. Zaldibitarrek, Migel Inazio legorretarra eta Juan Joseph de Mendizabal aramarra aukeratu zituzten, eta lazkaotarrek, aldiz, Migel de Etxarri ataundarra eta Martin de Arana ikasle beasaindarrak. Oso litekeena da lau epaile horiek berez apaiz edo alkate izatea, apostu latzak tarteko zirenean gizon prestuak behar izaten baitziren zalantzak argitzeke. Baina hala eta guztiz ere, lazkaotarrek 9 joko eta 40 kintze, eta zaldibitarrek 7 joko eta 30 kintze zituztenean, partidua 10 jokora zelarrik, norgehiagoka bertan behar utzi behar izan zuten, 'arraia' bat jokatzen ari zirela 'arraia' hori nork irabazi zuen zalantzak sortu zirelako. Eta gerora ados jartzen ez zirenez, pleituei ekin zieten, eta horri esker dakigu partidua-ren berri".

1878: data garrantzitsua

Beasaingo pilotaren historian 1878. urtea urte seinalatua da benetan. 1878. urtean Beasainen beste inon ez bezalako pilota gunea egin zen. Gaur egun zinea dagoen inguru horretan. Jose Marin Arana izan omen zen bultzatzaile nagusienetarikoa. Ondoko koadroan duzue pilota gunea handi horri buruzko informazio zehatzagoa.

Buenoren esanetan, "pilota gunea ikaragarri hori transizioa une batean eraiki zen. Jokamolde zaharretatik berrietarako trantsizioa ematen ari zenean. Pilota gunea hori elkarrekin harremana zuten hiru pilotaleku osatzen zuten. Pilotaleku horietan jokamolde guztietan jokatzeko aukera zegoen. Bai paretaren kontrakoak eta bai zuzenekoak; hau da, jokamolde zaharrrak eta berriagoak". Ondoko koadroan duzue galduta dagoen luzean pilota jokoari buruzko nondik norakoak. "Tristeia da gure arbasoen jokamoldea ez ezagutu eta tenisa ezagutzea", dio Buenok.

Pilota gunea handi hori eraikitzeke Beasainen pilotarako zaletasun handia ote zegoen galdetu diogu Buenori.

"Aranak idatzi batzuetan aipatzen zuen, herritarrek pilota gunea baten beharra zutela, jai egunetan dibertitzeko, beraien aisia erabiltzeko, tabernetara gutxiago joateko...".

Partidu garrantzitsuenak festetan jokatzen ziren. Herri-tarren arteko desafioak jokatzen ziren, herrien artekoak ere bai, Lazkao eta Seguraren aurka adibidez. 1881eko Loinatx jaietan errebotean jokatzen.

Pilota gunea handi hori pixkanaka-pixkana botatzen joan ziren etxebizitzak egiteko. "Urte askoan, Kiroldegia egin arte Beasain pilotalekuri gabe egon zen. Ez pilotaririk, ez zaletasunik... Gaur egun pilotalekuak asko dau-de, baina gaur egun ere kirol ugari dago. Lehen pilota bakarrik zegoen. Pelotarako zaletasuna Pilota Eskolari esker dago".

Ikerketarako iturriak

Ia lau urteko lanaren emaitza da 'Pilota Beasainen' liburua. Beasain Jaietan urtekariak, Beasaingo udaletxeko artxiboa, Tolosako artxiboa, pelotaren inguruko aspaldiko argitalpen batzuk izan ditu iturri nagusiak. Donostiako Koldo Mitxelena eta Gasteizko Santxo El Sabio liburutegietan ere aritu da.

140 orri eta argazki interesgarri asko. Bitxikeria eta informazio asko. Pilota elkar-teak, herriko pilotariak... denetarikoa informazioa irakur daiteke. Liburuaren azala, Zulueta margolariaren bozeto bat da. Pilota gunearen argazkirik ez eta plano eta bere interpretazioa sartu ditu Buenok liburuan.



Igor Buenoren lehenengo lana da 'Pilota Beasainen' liburua.


Beasaindarrak gustua hartu dio ikerketa lanari eta aurrera begira ere beste zerbait egiteko gogoarekin gelditu da.

7. kapituluaren esate baterako, Joxe Miel Barandiaranek bildutako kondaira bat biltzen du. Murumendirekin, pilotarekin, jentilekin eta harri puska batekin zerikusia duena.

Pilotari garrantzitsuak ere izan dira Beasainen. Adibidez, Joxe Migel Iturrioz eta Tiburtzio Lasa, Moises Sarrieg, Argiñanotarrak asko aipatzen dira. Gaur egungo pilotariak ere bai, Miamin dabilen Oiarbide, Mendia eskuz, Matxin erremontean...

Kultura

Liburu hau idazten hasi arte Bueno ez omen pilotak zen jabetu hainbesteko garrantzia eta kultur zentzua zeukanik. "Euskaldunon nortasuna da, zein tresna asmatu ditugun pilotan egiteko, larruzko eskularrua lehenengo, zumitza sartzen da... apustuak grina... Pilota galtzea euskara galtzea bezala litzateke. Eta joko zaharrak galdu dira eta galtzen ari dira. Joko zaharren alde zerbait egitea gus-tatuko litzaidake baina baliabide asko eskatzen ditu".



Beasaingo pilota gune handia

Pilotaleku berri hau elkarrekin harreman estua zuten hiru pilotalekuz osaturik zegoen. Pilotaleku bat 'luzean' eta 'errebotean' jokatzekoa zen, bestea 'pleka' edo paretaren kontra eskuz, guantez, palaz, zein xisteraz jokatzekoa, eta bestea trinketea. 74,80 area neurtzen zituen Etxeluze lur-saila bereganatu zuen Udalak, bertan pilotalekua eta pasealekua publikoak bakarrik egin eta eraikinik sekula ez eraikitze baldintzapean. Harmaila finkoak eraiki zituen 'luzean' eta 'errebotean' jokatzeko pilotalekuaren alde banatan, hiru ilara zituztela errepide aldean eta lau erreka aldean. Pilotaleku berria 1878ko ekainaren 17an inauguratu zen eta eguneko ekitaldirik garrantzitsuena probintziako hamar pilotari hoberenak jokatu-tako 'errebote' partidua izan zen. Bitxikeria bat: Pilotakada guztiak, ezin behar bezala neurtu, eta pilotak inguruko zelai edo baratze-tara erortzen ziren, batez ere frontisaren atze-

ko aldean, errepidearen ondoan, Juan Bautista Esnaolak Tirso de Olazabal jaunari errentan hartutako lur-sailetara. Piloten bila joandako jendeak kalteak eragiten zizkionez eta kalte-tuak herritarrei piloten bila joatea eragozten zienez, kalteordain gisa-edo udalak hainbat hitzarmen egin zituen Esnaola jaunarekin.

1894an, ordea, gauzak aldatzen hasi ziren. Lehenik Etxeluze lur-sailean inolako eraikinik ez zela eraikitzerik izango esanez jarri zen baldintza hura kentzeko eskatu zen. Etxebizitzak egitea zen helburua. Ezker-paretadun frontoia baino ez zen geratu. Frontoi historiko honek, bere plaza eta guzti, herriko gunerik eder eta animatuenetako izaten jarraituko bazuen, bertan, pilota partidu ugari jokatzear gain, bestelako ekitaldi asko ere egiten baitziren: musika bandaren emanaldiak, dantzaldiak, jaialdiak, azoka, idi-demak, ume-jolasak eta abar.

Pilota joku lucecora

Plazetan, inolako paretarik behar izan gabe, pillota joku lucecora edo luzean jokatzen zen. Bi hitzetan esateko: alboetako 'eskas'ak eremu hori bitan zatitzen zuen, talde bakoitzarentzat bana. Lau-lauren aurka, aurrez-aurre eta zuzenean, hala jokatzen zen. Sakea plaza-ren punta batetik bestera egiten zen, pilota 'sakarria'n punpatu eta aurkako taldearen eremura bidaliz, eta jarraian, belarretan edo lurrean boterik egiten ez zuenez, jokalariek aidez kolpatzen zuten pilota, eskularruez baliatuz betiere. Baina hori ez zen guztia. Luzeko jokoak bazuen beste berezitasun bat: 'arraiak'. Hala, lurretik zetozen pilotak ere onak izaten ziren eta jokalariek pilota gertzea edo ukitzea lortzen zuen lekuan irudizko lerro bat, 'arraia' markatzen zen. Gerora 'arraia' hori jokatzean, eta orduan bakarrik,

'arraia' horrek erdiko esakasa ordezkatzeko eremua bat bestea baino luzeagoa izatea eraginez. Hori 'arraia' lortutako taldearentzat abantaila izaten zen, 'arraia' jokatzekoan taldeek eremuz aldatzen zutelako. Bestelako hutsak, pilota zuzenean kanpora bidaltzea esaterako, falta izaten ziren eta taldeak tantoa galtzen zuen.

Hori izaten zen, beraz, jokoaren logika: aidezko pilotean hutsik ez egitea, norberaren eremua defendatzea eta aurkakoarenean 'arraia' lortzea, ahalik eta urrunen hobe, gero 'arraia' hori jokatzean lekuz aldatu eta eremu txikiagoa defendatu behar izateko. Partidua aurrez erabakitako joko kopurura jokatzen zen eta tantoak 'kintzeka' kontatzen ziren: 0, 15, 30, 40 eta jokoak. 'Arraia', bi taldeetako bat 40ra iristean edo bi taldeek 'arraia' bana zutenean jokatzen zen.

Mari Luisa Gorrotxategi zegamarra: etxe barruko margolaria

Etxeko lanak eta pintura uztartzen ditu Maria Luisa

Gorrotxategik. Etxeko txokoak eta elementuak margotzen ditu bereziki. Aizkorri hori bai, askotan agertzen da Gorrotxategiren koadroetan.

Maria Luisa Gorrotxategik pintura figuratiboa egiten du. Oleoz egindako etxe barruko txokoak, bodegoiak, lorontziak eta Aizkorri dira bereziki nagusi. Argazkiaren beharrik gabe, aurrez aurre aurkitzen du Gorrotxategik zer margotua. *"Ez nuen ikasi argazkitik pintatzen, beti naturaletik zuzenean margotzen dut. Argazkiak koadroa pixka bat eginda ematen du, zuzenean eginda beti gauza gehiago ikusten dira, itzal gehiago, argi ezberdinak... kontraste horiek bilatzea gustatzen zait"*.

Estilo figuratiboa egin izan du beti Gorrotxategik. Saiatu da beste estiloren bat egiten baina beti figuratiboan bukatu omen du.

Zegamarra ez du erakusketa askorik egin izan, baina egunotan, bada Gorrotxategiren lana gertuagotik ezagutzeko aukera.

Urtarrilaren 25a bitartean,




Maria Luisa Gorrotxategi, bere etxeko estudioan.

Oñatiko Kultur etxean izango dira Maria Luisa Gorrotxategiren lanak ikusgai. 30 margo-lan jarri ditu zegamarra erakusgai.

Orain 30 urte

Aspaldiko margolaria da Maria Luisa Gorrotxategi. Orain dela 30 urte hasi zen margo-tzen Miguel Angel Alvarez

donostiar maisuarekin. Aurretik, 16 urterekin, Beasaingo moja batekin egin zituen lehenengo urratsak. Gaur egungo erraztasunik ez omen zen margotzen ikasteko. *"Gaur egun herri gehienetan ematen dira ikastaroak. Baina orduan, margotzeko materiala aurkitzea bera ere oso zaila zen"*, adierazi digu.



1978. urtean 'Pintoras de Guipuzcoa' lehiaketaren lehenengo edizioa irabazi zuen zegamarra.

1978. urtean 'Pintoras de Guipuzcoa' lehiaketaren lehenengo edizioa irabazi zuen zegamarra. Orduan han eta hemen egin zituen hainbat erakusketa.

Gaur egun, margotzen jarraitzen du Maria Luisa Gorrotxategik eta dakiena beste-ei erakusten ere bai. Zegamarra Udalaren bitartez, margolaritzako ikastaroa ematen du herrian bertan. *"Aukera eman egin behar zaio jendeari. Jendea gustura joaten da. Afizioa badago, gustatzen da margotzea. Ikastaroetara doazenak, gehienak, emakumezkoak dira, orain arte beste lan batzuetan aritu izan direnak. Eta ikasten hasteko sekula ere berandu ez denez, ikasten hasi eta poliki margotzen dutenak badaude. Ikasi denek ikasten dute, pazientzia behar da"*, zehaztu du Gorrotxategi.



kutxa

gizarte ekintza

Mila Garmendia itsasondoarrak irabazi du XII. Aterpe pintura lehiaketa

Aurten bigarren aldiz irabazi du Mila Garmendia itsasondoarrak Aterpe pintura lehiaketa. 2001. urtean ere irabazi zuen Aterpe pintura lehiaketa. 2002. urtean bigarren saria eskuratu zuen. Mila Garmendiaren margolariaren ibilbidea laburbildu dugu lerrootan.

Nolatan eta noiz hasi zinen margotzen?

Pintura arloan 8 bat urte daramazkit. Itsasondokoa izan arren Arrasaten bizi naiz eta han hasi nintzen margotzen ikasten. Txikitatik gustatu izan zaizkit eskulanak. Altzariak errestarautzea, makramea... denetik, nire eskutan erortzen den guztia saiatzten naiz ikasten. Pinturarekin halako grina bat baneukan baina oso gauza zaila iruditzen zitzaidan. Baina behin Arrasaten koadroei markoa jartzen dien emakume batek hasteko animatu ninduen, kontua, hastea izaten dela eta. Hasi eta koloreak lantzen ikasi nuen, formak, perspektibak ikasi eta moldatzen nintzela ikusi nuen. Azkenean zerbait ikasi dudala ikusten dut.

Arrasateko eskola hura itxi egin zen eta Bergarako Juanjo Altunaren eskolara joan nintzen, teoria falta nuen eta. 3 urte daramazkit bertan. Normalean, asteburuetan margotzen dut, etxean eta eskolara ia bukatuak dauden lanak eramaten ditut, azkeneko oniritzia emateko edo falta dena egiteko. Teoria mailan gustatzen zait irakaslearen ideiak entzutea eta ikastea.



Mila Garmendia Aterpe tabernan, lehiaketa irabazi duen koadroaren aurrean.

Aterpe sariak behin baino gehiagotan irabazita ondo ikasi duzula esan nahi du...

Orain dela bi urte uda partean izaten diren aire libreko pintura lehiaketetan parte hartzen hasi nintzen. Olaberriakoa adibidez, nik irabazi nuen duela bi urte. Era hone-tatik ere asko ikasten da. Beste mota bateko lana da. Hasi eta bukatu egin behar da.

Sariak aurrera egiteko indarra ere emango dute.

Autoestima pixka bat igotzen da. Baina ez gehiegi. Nik neure mugak non dauden badakizkit, orduan muga horiek pasatzea da nire oraingo grina edo gogoia.

Non dago bada zure muga hori?

Ez dakit nola esplikatu. Nik nire irakaslearen koadroa ikusten dudanean badakit nork margotu duen. Hurrengo pausoa da, nire lana ezagutzen duen batek, nire koadroa ezagutzea. Pertsonalizatzea falta zait, eta hori da zailena. Nire estilo propioa bilatzen saiatzen ari naiz.

Aterpe pintura lehiaketa irabazi duen koadro honetan lortu al duzu helburu hori?

Orain arte figuratiboa landu izan dut. Orain nire aurrerapausoa izango litzateke, figuratibismo hori alde batera utzi eta abstrakzio mailan edo figurazio berria deritzaionean sartzea.

"Hurrengo pausoa da, nire lana ezagutzen duen batek, nire koadroa ezagutzea. Pertsonalizatzea falta zait, eta hori da zailena"

Zer iruditzen du koadroak?

Saiatu naiz plano ezberdinak marrazten, bata bestearen gainean jarrita daude. Aurrean dauden marrek transparentzia lana egiten dute. Azpian, denen azpian, bukaeran, paisaia bat badagoela ikusten da. Koloreetan grisa da nire kolorea. Grisa eta bere matiz guztiak asko gustatzen zaizkit.

Pinturatik bizitzea pentsatu al duzu inoiz?

Hori ez dago pentsatzerik. Pintatzea gustatzen zaigun pertsona asko gaude, milaka. Pinturatik bizitzea oso-oso-oso zaila da. Gustura nago horrela. Nire lana badaukat eta pintura hobya da. Hortik beste maila batera pasatzea oso zaila iruditzen zait. Gustatuko litzaidake afizio batekin dirua etxera ekartzea baina oso irreala da. Gustatuko litzaidake hori bai, Bergaran 3 urte daramazkidanez, beste irakasle bat hartzea, gauza ezberdinak ikusteko eta ikasteko. Hori bai, enkarguzko lanak egiten ditut.


Urtarrilaren 15etik apirilaren 1era Goieniz zine klubaren ziklo berria

Atzo, urtarrilak 15, ikusleek aukeratu-tako 'In this world' filme kuttunarekin hasi zen Goieniz zine klubaren XIX. zikloa. Jatorri eta zinemagintza ezberdineko 8 filme aukeratu dituzte Goienizekoek ziklo berrirako. Aurretik, urtarrilaren 8, 9 eta 10ean, 'III. Gau laburra' izan zuten eta hiru egunetan zehar Estatu osoko zein Euskal Herriko filme aipagarrienak ikusteko parada izan zen.

Ziklo berriari dagokionean, apirilak 1 bitartean, 7 filme izango dira, ostegunetan, gaueko 9etan, Beasaingo Usurbe antzokian. Sarrerak 3 euro balioko du. Ziko osorako abonua, berriz, 15 euro.

Egitaraua

- **Urtarrilak 29:** 'Storytelling'. Zuzendaria: Todd Solondz.
- **Otsailak 5:** 'Dolls'. Zuzendaria: Takeshi Kitano.
- **Otsailak 19:** 'Noviembre' Zuzendaria: Achero Mañas.
- **Martxoak 11:** 'Bienvenidos a Belleville'. Zuzendaria: Sylvain Chomet.
- **Martxoak 25:** 'El color del paraíso'. Zuzendaria: Majid Majidi.
- **Apirilak 1:** 'Baraka'. Zuzendaria: Ron Fricke.



ZINEA

GOIENIZ:

Urtarrilak 29:
'Storytelling', Usurbe
Antzokian, 21:00etan.

BEASAIN:

'Papá Canguro',
urtarrilak 17, Usurbe
Antzokian, 17:00etan.

bertsoak

BEASAIN:

Urtarrilak 24, Garin auzoan, bertso jaialdia, 20:00etan, elizan: Ekaitz Goikoetxea, Iker Zubeldia eta Bixente Gorostidi.

musika

IDIAZABAL:

Urtarrilak 23, Pilotalekuan kontzertua, 23:00etan, bertako tabernak antolatuta.

Urtarrilak 24, Musika plazan, herriko tabernariak antolatuta, 23:30ean.

txotxongiloak

BEASAIN:

Urtarrilak 24, 'Munchausengo Baroiaren abenturak' txotxongiloak, Usurbe Antzokian, 17:00etan. Sarrera: 2,40 euro.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Cuesta
(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.
Urtarrilak 17-18: Atorrasagasti
(Bustuntza auzoa - Ordizia). 943882938.
Urtarrilak 24-25: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.



Eskatu ordua: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57

antzerkia

BEASAIN:

Urtarrilak 14, Beasaingo Errail antzerki taldearen 'Gizon biluzia eta gizon frakaduna', Usurbe antzokian, 20:30ean. Sarrera: 3 euro.

Urtarrilak 23, Antzerki Garaia: 'Via dolorosa' Joaquin Kremelek aurkezturik. Usurbe antzokian, 22:15ean. Sarrera: 10 euro.

ZALDIBIA:

Urtarrilak 24, Garesko Txilindron antzerki taldearen 'El ultimo Bravo' antzezlan, Antzokian, 22:00etan.

dantzak

BEASAIN:

Urtarrilak 25, Garin auzoan, Ostadar dantza taldearen emanaldia, 12:00etan, eliza aurrean.

erakusketak

BEASAIN

Urtarrilaren 22an hasita, Ilu Valverderen arte-lanen erakusketa.

mendi irteerak

BEASAIN:

Urtarrilak 17, Aizkorri Mendizale Elkartea: eskalada Eginon.

Urtarrilak 25, Aizkorri Mendizale Elkartea: eski saioa Luz Ardidenen.

II. Neguko bertsopaper lehiaketa

Beasaingo Arrano Kultur Elkartek eta Bertsoaren Beasaingo Lagunak taldeak antolatutako, II. Neguko bertsopaper lehiaketako oinarriak kalean dira dagoeneko.

2 talde edo adinetan banatua dago: A taldean, 2004an 18 urte baino gutxiago beteko dituztenak; B taldean, 2004an 18 urte edo gehiago beteko dituztenak. A taldeko irabazleak 300 euroko jasoko ditu eta B taldekoak, 600 euro.

Bertso jartzaileek gutxienez 5 eta gehienez 8 bertso jarri beharko dituzte A mailan, eta gutxienez 8 eta gehienez 12 B mailan. Partehartzaileek nahi adina bertso-sorta bidal ditzakete lehiaketara. Bertsoak gai eta doinu librean jarriko dira bai maila batean zein bestean. Dena den, ezinbestekoa da sortaren doinuaren izena argi adieraztea. Lanek orijinalak eta beste inon argitaratu nahiz saritu gabeak izan behar dute. Sorta izenordez sinatuko da.

Lanak aurkezteko epea 2004ko otsailaren 20an bukatuko da. Epe honen barruan orijinala eta 3 kopia bidali beharko ditu parte hartu nahi duenak, kartazal itxi batean. Eta beste batean egilearen izena, helbidea, telefonoa eta beharrezko beste xehetasunak. Egilearen izenordea zorro bietan argi eta garbi jarri beharko da kanpoaldetik. Epaia, martxoan emanango da Beasainen burutuko den bertso-saioaren barruan.

Txalaparta ikastaroak

Tobera Musika Eskolak txalaparta ikastaroa antolatu du, otsailan eta martxoan. Astean behin bi orduko saioak izango dira. 16 urtetik gorako gazte zein helduei zuzendutako ikastaroa da. Musika ezagupenik izatea ez da beharrezkoa. Zegaman, Seguran edo Zerainen errolatuei 25 euro kostatuko zaie ikastaroa eta gainerakoei 30 euro. Izena emateko epea urtarrilaren 23an amaituko da (943801570). Eskolak Zegaman, Seguran edo Zerainen emango dira.

Beasaingo Errail antzerki taldearen emanaldia Usurbe antzokian

Urtarrilaren 14an Ordiziako Urrup antzerki taldearen 'Ez dago lapurrik, onik ez dakarrenik' antzezlan ikusteko aukera izan zen Beasaingo Usurbe antzokian. Gaur, herriko antzerki talde amateurraren txanda izango da, Errail taldearena. 'Gizon biluzia eta gizon frakaduna' taularatuko du, iluntzeko 8,30etan, izango da. Sarrera: 3 euro.

IKASTEK AKADEMIA

Goierriko akademia integral bakarra. Hezkuntzako profesionalek zuzendua.
Joan Iturralde, 5 BEASAIN ☎ 943 160 120 www.ikastek.net

ESKOLA LAGUNTZA

- ✖ Gai eta maila guztiak
- ✖ Banakako atentzioa
- ✖ Talde txikiak

IKASKETA ARAZOAK

- ✖ Errendimendua
- ✖ Irakurritakoaren ulermena
- ✖ Idazmena
- ✖ Ohiturak

GOIERRI ESKOLA

- ✖ Unibertsitate-maila
- ✖ Batxilergoa
- ✖ Moduloak

HADI UNIBERTSITARIOAK!

Intentsiboak
Larunbatetan
Deitu informazioa eskatuz!

Etxebizitzak

salgai

➡ Etxebizitza salgai Legorretan. Sukaldea berritua. 943806566.

erosi

➡ Lazkaon pisua erosi siko genioke partikular bati. Ekonomikoa. 616399300.

errentan eman

➡ Ordizian pisua alokatzen da. 665756560 - 653011954.

➡ Nafarroan, Urbasa mendilerroaren eta Urderraren ondoan, etxea, bere aparkalekuarekin, alokatzen da asteburu, zubi eta abarretarako. 948539381.

elkarbanatu

➡ Madrilan ikasleekin etxea konpartitzen du-gu. Mutil ez erretzaileak. 914595390.

Orubeak

salgai

➡ Gabirian, bi etxebizitzako etxea eraikitze-ko orubea salgai. 645712618.

Lursailak

salgai

➡ Zegaman lursaila salgai, etxea egiteko eskubidearekin. 943582035. Iluntzetan deitu.

Garajeak

errentan eman

➡ Beasaingo Garmendia Otaola 13an, garajea alokatzen da. 943027693.

➡ Garaje bikoitz itxia alokatzen da, Beasaingo Igartzako Usategi kalean. 600329197. 19:00etatik aurrera deitu.

Lokalak

errentan eman

➡ Ormaiztegin Citro-en azpian, lokal industrialak alokatzen da. 87,5 m². Bulegoa, duxak eta komunak ditu. 943884768. Gauz deitu.

➡ Beasainen, errepi-dearen ondoan pabilioi bat alokatzen da. 250 m², bi plantatan. Ekipatua. 669340218.

Negozioak

eskualdatzea

➡ Ordiziako erdigunean, taberna eskualdatzen edo traspasatzen da, jubilazioagatik. 943882883.

Animaliak

salgai

➡ Aharia salgai, gaztea eta ona. 943885102.

➡ 5 urteko setter ingles txakur arra salgai. Txuri-gorria, ehizean dakiena. Iluntzetan deitu. 943884207 (Jon).

➡ Urtebeteko bigantxa salgai, flebi arrazakoa. 943180100. 19:00etatik aurrera deitu..

Ibilgailuak

salgai

➡ Renault 5 GTL salgai. Merkea. ITV pasa berria. Iluntzetan deitu. 943887369.

➡ Toyota Landcruiser autoa salgai. SS-AG. Egora onean. 2.500 eurotan. 616942648.

➡ Golf Sprinter 1.6. gasolina salgai. SS-AD. Grisa. Kilometro gutxi eta oso merke. 943085584 - 943180352. Mikel.

➡ Ford Escort 1.6. GT. salgai. SS-AF. Beti garajejan egona. Oso merke. 943180352 - 650132272.

➡ Vespa 220 salgai. Egoera onean eta prezio onean. 658744903.

➡ Honda cr 250 cc. motorra salgai. 99. urtekoa. Egoera ezin hobea. 500.000 pezetan. 636070874.

➡ Kawasaki ZXR-750 markako motorra salgai. 647628186. Jon.

IBAI-ONDO AROZTEGIA

Koltxoak
Somierak



Sofak,
altzari mazizkoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gaztainondoak

multi**sac**

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48 11

www.antzizar.com

BEASAIN



MUJIKA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA

➔ Volkswagen Carabell furgoneta salgai. 2.4. diesela. 9 pertsonentzako. SS-AS matrikuladuna. Egoera onean. 627411808.

Bestelakoak

opari

➔ Euskal aldizkariak oparitzen ditut: Goierri-tarra, Ostiela, Elkarri eta Jakin. 943450697.

salgai

➔ Karabana salgai. Abanzearekin, egoera onean, merkea. 619441919.

➔ Zanussi Built-in dti 6726 ontzigarbigailua salgai. Altuera: 83,5, zabalera: 60 eta luzera: 62. 180 euro, estreinatu gabe. 943884318.

➔ Egurrezko kamilla eta bulegoko altzariak salgai. 943889415.

➔ 200 kilo intxaur salgai. 943888651.

➔ LP zaharrak salgai. Los grandes compositores, Eric Clapton, Neil Diamon... 652729563.

➔ Sehaska salgai. Egoera onean. 670422051.

➔ Zanussi garbigailu berria salgai. Estreinatu gabea. 615768977.

➔ Sukaldeko ekonomika salgai. Berogailu gabea. 943161422.

➔ Bigarren eskuko trikitixa salgai. 943084046.

➔ Sutarako egurra salgai. Ondo txikitua eta iharra. Garraioa gure kontu. 943883410.

➔ Lur Hiztegi Enziklopedia eta Lur Entziklopedia Tematikoa salgai. Oso egoera onean. 943027033.

➔ Sutarako egurra saltzen da, 2 metrora moz-tua. Olaberrian. 676882842.

➔ Kanape abatiblea, 0,90 x 1,90 neurrikoa. Berria. Erdi prezioan. 943027084.

Lana

eskaerak

➔ Gida baimena duen langile bat behar da. 943801107 - 645713222. Joxe,

➔ Beasainen pertsona bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 608775188.

➔ Sukaldaria behar da Ordiziako taberna-jate-txe baterako. 687609093.

➔ Lazkaoko taberna batean lan egiteko tabernaria behar da. Euskalduna. 943886852.

eskaintzak

➔ Bi orduz lan egingo nuke. Emakumezko esperientziaduna. Berdin da zein lanetan eta zein egunetan. 943889190.

➔ Enpresaritzan lizentziaturiko neska prest dago bere ikasketekin zerikusia duen lanpostu batean lan egiteko. 610369746.

➔ Emakume bat prest dago, astearte eta ostegun goizetan lan egiteko. 943084044.

➔ 24 urteko neska euskalduna eskaintzen da goizetan haurrak zaindu, etxeko lanak egin, tabernari gisa lan egin edo antzeko lanetarako. Esperientziaduna. 658745377. Goizetan edo gauetan deitu.

➔ Idazkari esperientziaduna eskaintzen da arratsaldetan bulegoko lanak egiteko. 645723316.

➔ Kimikan lizentziaturiko neska prest dago DBH eta DBHoko ikasleei klase partikularak emateko, Olaberrian. 699398477.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

URRAKI
BIDAIAK

OVER Taldea

8 egun edo
gehiagoko
bidaietan
deskontu bereziak

Kale Nagusia 42, behea
Tel./Faxe: 943 80 40 15
BEASAIN
urrakibidai@telefonica.net

BAKAS
ARROPADENDA

- MISS SIXTY
- LUXURY
- KILLAH BABE
- SESSUM
- ...

- % 40

Tel: 943 88 79 92
Garagarza plaza 3
20240 ORDIZIA



CAF-eko eskolako ikasleak 1966-an

1965-66 ikasturtekoa da argazkia, San Joan Bosko egunekoa (1966-1-31) hain zuzen ere.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Juan Manuel Galarraga, Marcelino Romero, Sebastian Etxeberria, Jose Gastesi, Jose M^a Mujika, Ramon Angel Hernandez eta Inazio Garmendia.

Erdiko ilaran: Inazio Silanes, Gonzalo Marquinez, Juan Manuel Etxeberria eta Juan Domingo Arbilla.

Beheko ilaran: Marcial Garmendia, Jose Manuel Oiarzabal, Jesus M^a Jauregi, Juan Perea, Jose Ramon Mauduit eta Eduardo Arraia.

Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.

PSIKOLOGI KLINIKOA

Argi

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

mazda
Bikar, S. A.

☎ 943 889 296 Faxe: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma BEASAIN

GUKlan

Berogintza
Iturgintza
Gasa
Klimatizazioa

Tel.: 943 161 277 Faxe: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN
Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI



GARMENDIA

Teilak eta teilatuak

*Egur tratamenduak
autoklabean*

diselnuar: acvultimedia




TEILATUAK



ZUREZKO EGITURAK



HODIAK



EGUR TRATAMENDUAK

Mallutz Poligonoa, 25 - 26 Pab. | 20240 ORDIZIA | Tel. 943 16 10 32 | Faxe. 943 16 08 42
www.garmendiatejas.com | www.tejasgarmendia.com | garmendia@garmendiatejas.com

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJ

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

ANTZIZAR

KIROLAREN UDAL ERAKUNTZA



g a s t a e z a z u !

Antzizar kiroldegian eskeintzen dizugun PLUS kirol txartelarekin, gure instalakuntzak kixkaltzen jarriko dituzu. Kiroletako instalazio guztietara* sarrera doan eta kirol ikastaroetan prezio oso bereziak izango dituzu.

Aukera zabalena prezio bakarrean.

*SAUNA ETA FITNESS BARNE!



BEASAINGO UDALA

www.antzizar.net

tel. 943 887900